

07

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

KGK

Genero- desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



KGAK

Genero- desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan

EAEko gazteen sare sozialen
erabilpenerako hurbilketa kualitatiboa

EUSKO JAURLARITZA**GOBIERNO VASCO**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILADEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

GAZTEAK BILDUMA

1. Osasuna eta gazteak /
Salud y juventud
2. Emancipación y precariedad en la juventud vasca
3. Euskadiko gazteak, 2008
4. Juventud vasca, 2008
5. M15M Bilbon /
15-M Bilbao
6. Precariedad vital y juventud vasca
7. Genero-desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan /
La desigualdad de género y el sexismo en las redes sociales

| | |
|--------------------------------|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2013ko maiatza |
| Ale-kopurua: | 500 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Egileak: | Ianire Estébanez eta Norma Vázquez |
| Itzulpena: | Esther Zarrua Isasi-Isasmendi IZOren berrikustea (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala) |
| Koordinazio editoriala: | Gazteen Euskal Behatokia |
| Bildumaren diseinua: | Canaldirecto • www.canal-directo.com |
| Maketazioa: | Rali, S.A. |
| Inprimaketa: | ONA Industria Gráfica, S.A. |
| ISBN: | 978-84-457-3295-3 |
| LG: | VI 196-2013 |

Aurkezpena

GENERO-DESBERDINTASUNA ETA SEXISMOA GIZARTE-SAREETAN ikerlanak zalantza-izpirik gabeko egitate bat du abiapuntu: gazteak eta, bereziki, nerabeak, harreman-modu berriak bizitzen ari dira teknologia berriei eta gizarte-sare birtualek eskaintzen dituzten konexio- eta komunikazio-erraztasunei esker.

Gizarte-sareek gazteen artean oso zabalera handia dutela diote Gazteen Euskal Behatokiak gai horri buruz eman dituen azkeneko datuek. 15 eta 19 urte bitarteko hamar gaztetatik bederatzi baino gehiago dira gizarte-sareetan profilen bat dutenak. Harreman-mota horretan goizen sartu direnak dira, hain zuzen ere, ikerketa honetako aztergaia.

Ikerketaren helburua zifretatik harago joatea izan da, gizarte-sare horietan genero-nortasunak nola eratzen diren eta genero-berdintasuna edo -desberdintasuna nola eraikitzen den sakonki aztertuta. Metodologia kualitatiboa erabili da, eztabaida-taldeak, zehazki, eta ia ehun gazteren bizipenak eta iritziak jaso dira. Material horri esker, egileek, Ianire Estébanezek eta Norma Vázquezek, honako ondorio hauek atera dituzte: neskek eta mutilek modu desberdinean erabiltzen dituztela gizarte-sareak eta, areago, indarkeria matxista presente dagoela gure gazteen harreman birtualetan ere.

Aurkezten dugun ikerketa honen modukoak zabaltzea noranzko zuzenean jartzen gaitu. Espero dugu ekarpen erabilgarria izango dela familiaren eta hezkuntza formal nahiz informalaren esparruetan berdintasunaren eta jarrera sexistak errotik ezabatzearen alde dihardutenentzat.

Cristina Uriarte Toledo

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| SARRERA | 9 |
| 1. GIZARTE-SAREAK: ADIERAZTEKO, KOMUNIKATZEKO ETA HARREMANAK IZATEKO ERA BERRI BAT | 11 |
| 1.1. Birtualizatutako adierazpen, komunikazio eta harreman modu berriak | 14 |
| 1.2. Eduki mediatiko berriak? Ala sexismo zaharra itxura berri-tuta? | 16 |
| 1.3. Mundu birtualaren garrantzia eta ondorioak neskentzat eta mutilentzat | 17 |
| 1.4. Sare sozialen deskribapena | 19 |
| 2. IKERKETAREN METODOLOGIA | 25 |
| 2.1. Ikerketaren helburuak | 27 |
| 2.2. Abiapuntuko hipotesia | 28 |
| 2.3. Laginaren eta argibide-bilketaren ezaugarriak | 29 |
| 3. EMAITZAK. SARE SOZIALAK NERABEZAROAN | 33 |
| 3.1. Gizarte sareen erabileraren ezaugarriak eta maiztasuna .. | 36 |
| 3.2. Gizarte sareen atalak | 38 |
| 3.2.1. Lagunen zerrenda | 38 |
| 3.2.2. «Egoera» gizarte sareetan | 41 |
| 3.2.3. Argazkiak | 43 |
| 3.3. Gizarte sareen erabilera eta eduki bereiztuak | 48 |
| 3.4. Sare sozialen arriskuak | 56 |
| 3.5. Mundu birtualaren eta benetakoaren arteko aldea | 61 |
| 3.6. Gizarte sareen garrantzia | 63 |

| | |
|---|-----|
| 4. SARE SOZIALAK GAZTEEN ARTEAN | 65 |
| 4.1. Sare sozialen erabilerearen ezaugarriak eta maiztasuna | 67 |
| 4.2. Gizarte-sareen atalak | 70 |
| 4.2.1. Lagunen zerrenda | 70 |
| 4.2.2. Adierazpenak sare sozialetan | 73 |
| 4.2.3. Argazkiak | 75 |
| 4.3. Sare sozialen erabilera eta eduki bereiztuak | 77 |
| 4.4. Erasoak gizarte-sareetan | 83 |
| 4.5. Mundu birtualaren eta benetakoaren arteko aldea | 86 |
| 4.6. Gizarte-sareen garrantzia | 87 |
| 5. NESKAK ETA MUTILAK, NERABEZAROA ETA GAZTAROA: GIZARTE-SAREEN ERABILERA EZBERDINAK | 89 |
| 5.1. Gizarte-sareak: gizartearen erakusleioa... | 91 |
| 5.2. ... nortasun birtualez... | 93 |
| 5.3. ... etengabe konektatuta | 94 |
| 5.4. Benetako desberdintasuna, desberdintasun birtuala | 95 |
| 5.5. Sexismoa eta nesken aurkako indarkeria mundu birtualean | 96 |
| 6. ONDORIOAK ETA AHOLKUAK | 99 |
| 7. ERREFERENTZIAK | 107 |

Sarrera

Sare sozialak gazteak dira, haiek gehien erabiltzen dituztenak gazteak diren eran. Gaur egungo belaunaldia sare sozialekin eta hauek garatzen ari diren aldi berean hazten ari da, nahiz eta ez beti abiadura berean. Hedabide hauen ezaugarriek garrantzi handia dute gazteen arteko komunikazio eta harreman moduak taxutzeko orduan. Berezko arauak dituen errealitate birtual hau benetakoaren pareko mugagabeko unibertso bilakatu da, zeinetan errealitatearen ezaugarriak irudikatu, hanpatu, itxuraldatu eta berrasmatu egiten diren. Unibertso hau, bestalde, ikergai bihurtu da, ikerketa ezinbestekoa baita errealitate berri hori berori, bere arauak eta gazteen artean duen eragina, beste alderdi askoren artean, ezagutu ahal izateko.

2009tik aurrera Gazteen Euskal Behatokiak giza-sare birtualak eta ziberbullyinga izan ditu aztergai; era berean, gazteri-arloko teknikari izateko heziketa programaren baitan berdintasun harremanen ikuspuntua txertatu du eta burututako ikerketa soziologikoetan ere generoa eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien, aurrerantzean IKT, erabilerari lotutako gaiak aztertzeari ekin dio.

Sortzenek, bere aldetik, sexu-indarkeria eta gaztediari buruzko lan ugari egin ditu genero ikuspegitik, indarkeriaren prebentzioaren alorrean gazteei zuzendutako argitalpen anitz burutuz, besteak beste sare sozialetan indarkeriaren prebentzioaren inguruko komikia (Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, 2012).

2012 urtearen erdialdetik hona bi erakundeon ahaleginak batu dira teknologia berriak eta genero-berdintasunaren eraikuntzaren azterketan sakontzeko, konturatu garelako, nahiz eta genero-desberdintasunaren eta indarkeriaren adierazpideak desberdinak izan gaurko gazteen artean, desberdintasunaren erakusbideak geroz eta sotilagoak direla eta geroz eta normalizatuagoak daudela, etengabeko komunikazioa eta kontrola errazten duten gune birtualetan geroz eta nabarmenago nagusituz.

Gizarte sareek gazteentzat duten garrantzia eta bertan agertzen diren norberari eta norbere bizitzari buruzko adierazpenak kontuan izanik, genero-desberdintasuna ere nabarmen islatuko da bertan. Gizarte sareak banakakoaren nortasunaren ispilu badira, hein berean dira genero identitateen ispilu. Gure nahia, sare sozialen gaineko datu kuantitatibo edo estatistike-tatik haratago, gazteen mintzaldiaren azterketaren bidez identitate horietara hurreratzea da.

Sarearen erabileran mugak, babes-neurriak eta segurtasuna beti tendentzia ez diren mundu gero eta birtualizatuago honetan, Interneten erabilerak berezitasunak ezartzen ditu nesken eta mutilen artean. Honela, desberdintasunerako eszenatoki berri bat eraiki da eta

berau adierazteko modu berriak jaio dira. Sarean agertzen diren ikusentzunezko edukiek este-reotipoak eta neska gazteak eta mutil gazteak ulertzeko era aldaezinak hedatzen dituzte; hots, batetik, nesken aurkako sexu-indarkeria modu zehatzak eta bestetik, emakumeen gorputzaren aurkako indarkeria mota sinbolikoak. Beraz, genero desberdintasunak itxura berriak har ditzake, baina horrek ez du esan nahi saretik desagertuko denik. Horregatik, sare sozialetan jokabide ezberdindu eta neurritz kanpokoak aurreikusteko edota hauen inguruan ekinbide berriak jorrazten hasteko, baita sare aske eta berdinzaleagoa sustatzeko ere, derrigorra da gazteen mintzaldia jaso eta aztertzea ahalbidetuko duen genero ikuspegiko ikerketa egitea.


Sare sozialak adierazpenerako, komunikaziorako eta harremanerako bide diren hein berean, neskek eta mutilek egiten duten erabilera ere genero-desberdintasunaren erakusgarri da.

Ikerketa honen aurretik egindako landa-lanak partaidetza handia behar izan du, hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiegu taldeetan parte hartu dutenei eta ezagunak bertara bideratu dituztenei, batez ere Deustuko ikastolari, baina hauez gain, babes-taldeari ere eskerrak eman nahi dizkiogu. Talde-eztabaidak antolatu, dinamizatu eta grabaketak berridazten jardun duen lan-talde honetako partaide izan diren Miriam Herbón, Ane Navarro, Irati Arrillaga, América Bustillo, Susana Manzanedo, Ainhoa Cabrera, Alexander Rodríguez, Gaizka Tovar, Osane Leerra eta Aitziber Oteguiren lana izan da orrialde hauei izana eman diena.

KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

**1.
Gizarte-sareak:
adierazteko,
komunikatzeko eta
harremanak izateko
era berri bat**



1

Gizarte-sareak: adierazteko, komunikatzeko eta harremanak izateko era berri bat

Azken urteotan gizarte-sareek gazteen artean komunikatzeko, harremanak izateko eta elkarrekiteko moduan aldaketak ekarri dituzte, mundu birtualari toki esanguratsua eskainiz haien norbanako bizitzetan.

Norbanakoen arteko harremanetan gizarte-sareen erabilerak duen nagusitasuna baieztatzen duten datuak baditugu ere —esaterako Gazteen Argazkiak 15 txostenak azaltzen duen legez, EAEko 15 eta 29 urte arteko gazteen % 83k gizarte-sareen bat erabiltzen duela—, nerabe eta gazteen erabileraz daukagun informazioaren zati handienak izaera kuantitatiboa du.

Horrela bada, 2010ean Europako 25 herrialdetan burututako *EU Kids Online* galdeketak erakutsi du 9 eta 16 urte arteko adin txikikoen % 59k gizarte sareetan profilen bat duela (12-13 urtekoen artean % 73k eta 15-16 urtekoen artean % 82k). Galdeketak adin txikikoek gizarte-sareetan hartzen dituzten arriskuak azpimarratu ditu, adieraziz % 26k bere profila jende guztiak ikusteko bezala argitaratzen duela eta % 41ek inoiz arriskuren bat bistaratu duela gizarte-sareetan, neskak direlarik suminduago agertzen direnak ikusi edo jaso dituzten mezu ezatsegin edo zaurigarrien kontura¹.

Hala ere, nahiz eta azken urteotan gai honen azterketari ekin zaion eta gizarte-sareek gazteen bizitzan duten lekuaren garrantzia baieztatzen diguten datu kuantitatiboak eskuratzen hasiak garen, oraindik ez da ikuspuntu kualitatibotik aski ongi ezagutzen zein den egiten den sareen erabilera, hau da, norberak ematen dien garrantzia, pribatutasunari dagokionean edota eraso birtualen arriskuei dagokienean sareok dakartzaten ondorioak, ezta gaurko gazteek hurkoekin dituzten harremanak aldatzen ari den modua ere.

Bibliografia oraindik urria da azterketa genero ikuspuntutik egin nahi denean; zeintzuk erabilera, esanahi eta ondorio dituzten gizarte-sareek neskenentzat eta zeintzuk mutilentzat, alegia. Aztertu izan dena generoari lotutako arrakala digitala izan da eta honek baieztatzen du desberdintasunak daudela neskek eta mutilek egiten duten Interneten erabileran. Halaber, orain

¹ Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHU) EU Kids Online ikerketa-sare europarraren baitan egindako azterketa.

arteko hainbat analisisik eta zenbait blogetan edota sareetan bertan egindako gogoeta feministek adierazi dute sareok genero estereotipoak indartzen dituzten eduki sexistak birsortzen dituztela. Gainera, Internet bitartez sexu-erasoak (ziber-jazarpena) suma daitezke. Honegatik guztiagatik esan dezakegu giza-sareak sexu bereizkeria eta sexismoa birsortzen dituzten guneak direla.

Gazte belaunaldi digitalen desberdintasun mota berri hauen ezagutzan sakontzea beharrezko urratsa da berdintasuna sustatzeko estrategiak garatzeko eta gizarte-sareetan gertatzen den indarkeria sexista ekiditeko.

1.1. BIRTUALIZATUTAKO ADIERAZPEN, KOMUNIKAZIO ETA HARREMAN MODU BERRIAK

Konektatzeko erraztasunak, berehalakotasunak eta kontaktuei eusteko gizarte-sareen orokortzeak gazteen arteko adierazpiderako eta komunikaziorako eredu berriak ekarri dituzte. Segatok (2003) dioenez, alteritatea ilusio hutsa da Interneten eta elkarrizketa gezurrezkoa, birtualitateak mugak baititu mintzaldiaren bitartekaritzari dagokionean. Norbanakoek errealitatean egingo ez luketen bezala adierazteko eta agertzeko aukera dute, nortasunak asmatuz eta irudikatutako gorputzetan ameskeriak gauzatuz.

Sareen erabilerak mugarik gabeko gizarteratzea dakar, zeinek elkarrizketatzaileak ikusi gabe ikustea ahalbidetzen duen, «neurria egindako nortasunak»² sortuz eta Amparo Lasének (2010) adierazi bezala, «intimitatearen eraldaketak» ere sustatuz.

Egile honen iritziz, gailu teknologikoen hala intimitatearen esparrua nola sexualitatearen, gorputzaren eta afektuen inguruko barne-harremanak egituratzea, eraldatzea eta birnegoziatzea ahalbidetzen dute hainbat jokabideren bidez, hala nola, bikote harremanetan patrikako telefonoaren erabilerak duen eragina edo erretratuaren erabilpena.

² Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko Nazioarteko Biltzarrean Gloria Bonderrek egindako hitzaldian —Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartearen sorrera: egokitzetik jabetze eraldatzaile— egindako gogoetak. Bilbo, 2012ko urriak 17.

Autoerretratugintza oso hedatu eta orokortu da azken urteotan gure inguruko gazteek gehien darabiltzaten sare sozialen bitartez (Tuenti eta Facebook) eta merezi du neskengan eta mutilengan duen eraginaz azterketa sakona egitea. Bainugela edo logela bezalako ingurune pribatuetan larrugorri edo jarrera erotikoan ateratako argazkiak erakustea, exhibitzeko beharra eta onarpen-eskariak («Gustuko al duzu nire argazkia?») sarritan bestearen begiradaren bidez (Lasén eta Gómez, 2009) norbere gorputzarekin eta norbere itxurarekin adiskidetzeko saiakerak dira.

Autoerretratuak ateratzea, erakustea eta elkarrekin trukatzeko sareko ikusleen aurrean nork bere burua aurkezteko moduak dira eta hiru alderdi lotzen dituzte (García, Cruces eta Arteaga, 2012): aurkezpena (gorputzarena eta Niarena), irudikapena (norberarentzat eta besteentzat) eta gorpuztasuna edo haragizkotasuna (*embodiment*), esan nahi baita norberaren erreferente den Nia adierazten dutela, baina hura hartu-emanaren esparruan ere kokatuz. Irudi hauek feminitatearen eta maskulinitatearen eredu berriak dira, ez bakarrik deskriptiboak, hau da, ez dizkigute soilik jarrera eta keinu anitzeko irudiak erakusten, baizik eta, batez ere, genero-eredu preskriptiboak ezartzen dituzte, neskentzat eta mutilentzat zuzena eta egokia dena ezarriz eta gazteak haien gorputzek autoerretratuetan hartzen dituzten jarreraren eta moldeen arabera balioetsiz, zenbat eta publizitatearen modetatik edo tendentzietatik (*trends*) hurrago eta hobeto.

Kategorizazio eta balioespen hauek eragin handia dute, batik bat haien identitatea erakitzen ari diren gazte-taldearen artean. Hori dela eta jarduera hauen genero-preskripzioak eragin-korrangoak dira nerabegaroko zenbait arotan edo norberaren uste eta identifikazioak krisian dauden bizitzako uneetan.

Nork bere buruari argazkiak egitea eta adiskide birtualen kopurua izen onarekin eta onarpenarekin lotzea gizarte-sareen erabiltzaile gazteen artean aski zabaldua dauden jarduera eta usteak direla dirudi. Besteekin harremanak izateko modu berriak dira eta errealitatearen eta birtualitatearen, bakardadearen (erreal/birtuala) eta komunikazioaren (erreal/birtuala) artean bizi den gaztediaren irudi dira. Profil birtualak, zenbaitetan, *on line* eskuragarri den bizitza-historial baten garrantzia hartzen du; lehen era pribatuan bizi ziren pentsamendu, bizipen, sentimendu eta harremanak behin eta berriz gaurkotzeko eta erakusteko beharra sustatzen du, eta nesken eta mutilen arteko harreman modu berriak erakitzen eta hedatzen ari da, zeinetan merezi duen aztertzea genero- desberdintasunaren eta adierazpen sexistaren agerbideak.

1.2. EDUKI MEDIATIKO BERRIAK? ALA SEXISMO ZAHARRA ITXURA BERRITUTA?

IKTek genero-desberdintasuna birsortuz jarraitzen dutelako erakusgarri nagusietako bat «generoari lotutako arrakala digitala» deritzona da, honek frogatzen baitu emakumeen Interneterako sarbide-maila gizonetzkoena baino murriztagoa dela. 16 eta 24 urte artekoen artean arrakala digital honek ez dauka belaunaldi helduengan duen garrantzia eta ia ez dago alderik mutilen eta nesken artean Interneten erabilera mailari dagokionean. Gertakari honi buruzko azken azterketaren arabera, gehienek posta elektronikoa erabiltzen dute (% 92,3), txat bidezko mezua eta berehalako mezularitza darabiltzate (% 80,7) eta ondasun eta zerbitzuen inguruko informazio bila aritzen dira (% 74,9), inolako genero desberdintasunik sumatzen ez delarik³.

Dena den, gaitasun informatikoei eta Interneten oinarritzko erabilerari dagokienean, generoari lotutako arrakalak gazteen artean txikitzeko joera badu ere, badirudi beste arrakala baten zutik dirauela, «generoari lotutako hirugarren arrakala digitala» deritzonak, hain zuzen ere. Honek Interneteko aplikazio aurreratuenekin zerikusia du, ikusten baita kontsultatutako eta partekatutako edukiei dagokienean genero-rolak birsortzen direla, desberdintasun esanguratsuak daudelako nesken eta mutilen zaletasunen artean, lehenengoek nahiago dituztelarik kulturari, hezkuntzari eta aisiari lotutako edukiak (gizartea eta «famatuak») eta bigarrenek aisiari eta astialdiari lotutakoak (jokoak, kirola eta informatika).

Desberdintasun hau generoaren arabeko rol bereiztuak ezartzen dituen eta Interneten partekatutako edukietan ere desberdintasunak txertatzen dituen gizarteko desberdintasunaren isla birtuala izan liteke. Hori dela eta, gizarte-sareak erabiltzen dituzten gazteen ehuneko eta erabileraren maiztasuna ezagutzea ahalbidetzen duten estatistikak jasotzeaz haratago, dagoneko nahitaezkoa da aztertzea zein den neskek eta mutilek sareak erabiltzeko duten modua eta haietan birsortzen diren edukiak ikertzea.

Zein motatako edukiak partekatzen diren, zer sustatzen den haien bidez, emakumeen aurkako zein motatako indarkeria islatzen duten (sexuaren alorrean nagusiki) edota estereotipo

³ *La brecha digital de género en la juventud española. Diciembre 2010. Estudio cuantitativo.* Observatorio e-igualdad. UCM.

erabat sexistak edo matxistak elikatzen ote dituzten, denak dira genero ikuspegitik sakonki aztertzeaz dauden gaiak, gizarte sareetako edukietan birsortzen ari diren desberdintasun eta parrakidetasun ezak ulertu ahal izateko.

1.3. MUNDU BIRTUALAREN GARRANTZIA ETA ONDORIOAK NESKENTZAT ETA MUTILENTZAT

Bestalde, gazteek gizarte-sareen bitarteko komunikazioa zein maiztasunekin darabilten ikusita, ezinbestekoa da ikertzea zer nolako garrantzia ematen dieten hauei bai neskek eta bai mutilek, zein eragin duten haien norbanako bizitzetan eta komunikazio birtuala dela eta zein ondorio aurre egin behar dieten neskek eta zeini mutilek, aurreikusi ahal diren arriskueta in-darra jarritz.

IKTen erabilerari atxikitako arriskuei buruz Europan egindako 400 ikerketaren arabera, europar nerabeen % 50ek bere buruari buruzko informazioa zabaldu du *online*, % 40k pornografia ikusi du, % 30ek eduki bortitzak ikusi ditu eta % 20k ziberbullyinga (hurkoek eginiko jazarpen birtuala) pairatu du. Hala ere, estatistiken azterketa orokorrak, generoaren araberrako bereziketarik egin ezean, ezina egiten du giza-sareen erabilerak eta bertan agertzeak emakumezkoek modu berezitan eragiten dien jakitea, ezta eragina zein neurritakoa den ezagutzea ere. Horrela bada, 2010ean buruturiko ikerketa batean nerabeei galdetu zitzaieen ea inoiz Internet erabili ote zuten norbaiti kalte egiteko (argazkiak, bideoak edo iruzkinak igorritz) edo aitzitik, inork kalte egin izan ote zien. Ondorioztatu zutena izan zen neskek bere burua mutilek baino gehiago zutela biktimatza eta hauek neskek baino kopuru handiagoan onartzen zutela kaltea burutu izana⁴.

Ildo honetatik, hainbat ikerlanek adierazi dute desberdintasun nabariak daudela neskek eta mutilek indarkeria eta jazarpenari lotutako jokabideen inguruan dituzten oharpenttan. Hortaz, genero aldetik desberdintasunak daude norbere jokaera erasokortza jotzerakoan (Corral, 2006), mutilek txikitu egiten dituztelako eurek burututako erasoak eta emakumez-

⁴ *La tecnología en la preadolescencia y adolescencia: Usos, riesgos y propuestas desde los y las protagonistas.* Save The Children, 2010.

koek, aldiz, pairatutakoak. Aldi berean, erasoaren aurrean duten bizipena desberdina da sexuaren arabera (Meras Lliebre, 2003); emakumezkoentzat ondorioak tristura, beldurra eta ezintasuna izaten baitira, gizonezkoek, haatik, tristura baino maizago amorrua sentitzen dutela esaten dute.

Indarkeria psikologikoaren oharpenaren inguruan eta honen aurreko jasangarritasunaren inguruan (jazarpen eta kontrol birtuala barne) Sortzen Consultoriak⁵ aurrez eginiko zenbait ikerketak egiaztatu zituen genero desberdintasun hauek. Ikerketotan, bereziki, jazarpenezko jokatibidearen pertzepzio desberdina nabarmendu zen. Horrela, «Egunean 10 baino aldi gehiagotan deitzen dizu edo mezua bidaltzen dizu» esaldiaren aurrean, nesken % 37,3k jarrera maitakortzat eta bikotekidearen interesaren erakusgarritzat jo zuten, kontrolaren alderdiari ezikusi eginez eta 0,95eko garrantzi maila emanez (0tik 5era); mutilen % 76,3k, ordea, argi zuten dei horiek bikotekidea kontrolatzeko zerabilten bidea zirela, 2,64ko garrantzi maila emanez. Hau da, neskek maitasuna eta interesa ikusten zituzten lekuan, mutilek bazekiten kontrola erabiltzen zihardutela.

Esanak esan, eta orain arteko ikerlanek argi eta garbi adierazi duten arren neskek erasoaren eta jazarpenaren aurrean tolerantzia handiagoa dutela (eta maizago direla biktima), alor honetan sakontzen jarraitu beharra dago.

Zer esan nahi dute neskentzat eta zer esan nahi dute mutilentzat gizarte sareek? Zer egingen dute haien bidez? Zein adierazpide darabilte? Zer nolako harreman birtualak dituzte? Erasorik bizi edo pairatu izan dute eta zeintzuk izan dira ondorioak? Den-denak, beraz, gazteen mintzalditik bertatik aztertu beharreko gaiak dira.

Honek guztiak generoari lotutako nortasun birtualak eraikitzeke moduak adierazten ditu eta desberdintasuna, sexismoa eta indarkeria sare sozialetan —aro teknologiko berri honen ordezkari diren tresnak— nola espresatzen ari diren erakusten digu.

⁵ Sortzen Consultoria: *Violencia psicológica contra las mujeres jóvenes: La violencia psicológica en las relaciones de noviazgo* (2009).
Indarkeria sexistari buruzko gazteen pertzepzioaren eta iritzien diagnostikoa Ondarroan eta Markina-Xemeinen (2010).

1.4. SARE SOZIALEN DESKRIBAPENA

Sare sozialak zein anitzak diren kontuan izanik, haien artean ezagunenak eta gure ustez gazteek gehien erabiltzen dituztenak aukeratu ditugu ikerlan honetan aztertzeko. Ondoren laburki azalduko dira aztertutako sare sozialen (Tuenti, Twitter, Facebook eta Whatshapp) ezaugarriak; era berean, neska-mutilek sareetara igotzen dituzten argazkien eta haien ezaugarrien kategorizazioa ere egin dugu.

1.4.1. Tuenti

Tuenti 2006an sorturiko giza-sare espainiarra da, 14 milioi erabiltzaile⁶ baino gehiago dituena. 2011 arte sare pribatua zen eta bertan sartzeko aukera bakarria Tuentiren erabiltzaileen batek bidalitako gonbita zen. Baina ordutik bertan izena ematea irekia da, baldintza batekin, gutxienez 14 urte izatea (erabiltzaile askok betetzen ez dutena).

Sare honetan erabiltzaileak *profila* izendatutako bere orrialde pertsonala sortzen du. Bertan argazki bat atxiki eta argibide pertsonalak eranstean ditu (esaterako urtebetetze eguna, bizilekua, ikaslekua edo lanlekua, irtetzen den lekuak, norbere gustuak edota aipuak, aldarte-egoeira); argazkiak eta mezuak igo ditzake eta *lagunak* bere profilean sar ditzake.

Hauexek dira Tuentiren atal nagusiak:

- *Nire lagunak*. Sare sozialean gehitu ditugun kontaktuak, ezagunak eta lagunak dira. Laguna izan ahal izateko beharrezkoa da norbaitek adiskidetasun-eskaria bidaltzea («laguna gehitu» edo kaleko hizkeran esaten den moduan *agregatu*) eta besteak onartzea.
- *Arbela*. Norberaren egoera eguneratzen den eta lagunaren iruzkinak jasotzeko balio duen txokoa da. Egoera «Zer egiten ari zara?» galderari erantzuten dion iruzkina da,

⁶ Sare sozialetan erabiltzen den hizkuntzaren ezaugarria da emakumeak ikusezin egiten dituela. Beraietan erabiltzaileez mintzatzean gizonezkoak bakarrik hartzen dira kontuan. Giza-sareak zer diren fideltasunez adierazteko, atal honetan erabiliko diren hizkera eta hitzak bertan erabiltzen direnak izango dira. (Itzultzailearen oharra: genero bereizketak gramatikala egiten duten hizkuntzez, ikus gaztelania, ari gara).

nahiz eta iruzkin horretan egiten ari dena, pentsatzen ari dena, beste norbaiti eskainitako mezu bat, aipu bat, sentimendu bat, eta abar jar daitezkeen. Lagun batek besteari bidalitako iruzkinak profilean gehitutako beste lagun guztiek ikus ditzakete. Horrela bada, pertsona baten lagun guztiek irakur ditzakete arbeleko mezuak eta bertan egiten diren elkarrizketa edo galderak.

- *Argazkiak*. Hauxe da giza-sare honen erabilera nagusia. Argazkiak igotzea eta beste batzuen argazkiak «etiketatzea» jokabide arrunta eta usua da. Argazki bat igotzean, pertsona horren kontaktu guztiek ikus dezakete. Norbait etiketatzeak esan nahi du argazki hori beste norbaiten izenarekin lotzea. Norbere argazki baten beste pertsona bat etiketatzean, bestearen kontaktu guztiek ikus dezakete argazkia. Horrela, batzuetan, jende askok eta askok ikus dezake beste baten argazki bat, nahiz eta haren kontaktu zuzenak izan ez. Etiketatzearen arrazoiak izan daitezke, pertsona hori argazkian agertzen delako (erabilera logikoa), pertsona horrek edo horiek argazkia ikustea nahi delako, pertsona horri edo horiei eskaini nahi zaielako, edota helburua jende gehiagok ikustea delako.
- *Egoera sentimental*. Profilean eskaintzen diren bi aukeren arabera hautatzen da: Egoera eta Bila ari naiz. Egoerak eskaintzen dituen aukeren artean ditugu: Ezkongabea, Norbaitekin, Jostalaguna dut, Ezkon-hitza emanda, Ez agertu. Eta Bila ari naiz hautatuz gero, hauek dira aukerak: Adiskidetasuna, Mutila, Neska, Mutila jostatzeko, Neska jostatzeko.
- *Pribatutasuna*. Profila eta argazkiak ikusi ahal izateko oraintsu arte eskaintzen ziren hiru pribatutasun-aukerak hauexek ziren: Lagunak bakarrik, lagunak lagunak edo Tuenti osoa. 2012ko maiatzetik aurrera Tuentiren asmoa aldatzea da eta poliki-poliki profil guztiak «lagunak bakarrik» aukeraren bidez babestea, onartutako lagunek bakarrik ikus ditzaten profilaren edukiak. Dena den, ez du onartutako lagunak artean inolako ezberdintasunik edo konfiantza-mailaketarik egiten uzten, ezta zein eduki zein lagunekin partekatu nahi den aukeratzen uzten ere. Hortaz, oraindik, eduki guztiek kontaktu guztientzat eskuragarri izaten jarraitzen dute.
- *Mezu pribatuak eta txata*. Mezu pribatuek eta txatak aukera ematen dute profilean txertatutako lagunekin berehalako hizketaldi pribatuak izateko.

1.4.2. Facebook

Facebook giza-sareak 900 erabiltzaile baino gehiago ditu mundu zabalean. Jatorriz Harvardeko Unibertsitateko ikasleentzako gune bat zen, baina 2007az geroztik Web-gune irekia da eta bertan izena eman dezake posta-kontu elektronikoa duen edonork. Sarearen profilean norberaren argazkia eta datuak agertzen dira eta kontaktuen («lagunak» deritzenak) zerrendan oinarritzen da, zeintzuekin eduki anitzak partekatzen diren: argazkiak, iruzkinak, loturak edota lagun komunak aurkitzea gure kontaktuen profilen eguneratze eta berrikuntzen bidez. Sare sozial honen oinarritzko atalak hauexek dira:

- *Lagunen zerrenda*. Bertan bila eta txerta daiteke Facebooken izena emandako edonor. «Adiskidetasun birtuala»ri ekiteko ezinbestekoa da kontaktatutako pertsonak gonbita onartzea.
- *Horma edo biografia*. Erabiltzaile bakoitzak bere profilean duen txoko bat da eta bertan agertzen dira erabiltzaile horrek igotako edukiak. Aldi berean, lagunek mezuak, irudiak edo beste eduki batzuk argitara ditzakete, erabiltzaileak eta oro har bere gainerako kontaktuek ere ikusi ahal izango dituztenak.
- «Gustuko dut» *botoia*. Zerbait argitaratzen den bakoitzean (egoeraren eguneratzea, partekatutako lotura, igotako argazkia) behe-aldean agertzen da. Hatz lodia gora begira duen esku baten ikurraz irudikatzen da eta edukia beste erabiltzaileen gustukoa den adierazteko balio du.
- *Argazki-albuma eta etiketatutako argazkiak*. Erabiltzaileek argazkiak banaka edota argazki-albumetan igo ditzakete. Bestetik, erabiltzaile batek igotako argazkietan beste erabiltzaile batzuk etiketatu ditzake, hau da haren edo haien izen-abizenak argazkiarekin lotu edo etiketatu.
- *Pribatutasuna*. Erabiltzaileak Facebookeko atal anitzak modu pertsonalean konfiguratu ditzake, bertako eduki eta mezuak aurrez aukeratutako jendeak soilik ikus ahal ditzan:
 - «Publikoa» (jende guztia, eduki hau bilatzaileetan «indexatuta» ager daiteke).
 - «Lagunak» (adiskideen zerrendan dauden erabiltzaileek bakarrik ikus dezakete).

- «Pertsonalizatua» (honen bitartez aukera daiteke eduki jakin bat lagunak lagunek ikusi ahal izatea, edota lagun-zerrenda zehatz batek, edota pertsona batek edo batzuk, baita pertsona batzuei edukia ezkutatzea ere).

— *Egoera sentimental*. Aukera hau agertzen da baldin eta erabiltzaileak bere harreman afektiboen berri eman nahi badu eta harremanetan dagoen pertsonaren profilararekin lotura ezartzen badu. Egoera honetan aurki daitezkeen aukerak ondokoak dira: Ezkon-gabea, Norbaitekin harremanetan, Ezkon-hitza emanda, Ezkondua, Zaila da, Harreman irekia, Alarguna, Banatua, Dibortziatua.

— *Mezu pribatuak eta txata*. Gizarte sareak berak ematen du kontaktuekin berehalako hizketaldiak izateko aukera. Beraz, horma/biografiaren edo igotzen diren bestelako edukien bidez kontaktatzeaz gain, txateko erabiltzaileen artean elkarriketa pribatuak izateko aukera ere badago.

1.4.3. Twiter

Microblogging edo mezu laburretarako zerbitzua da. Honen bidez *tweet* deituriko gehienek ere 140 karaktereko mezuak bidal daitezke eta hauek erabiltzailearen orri nagusian ageri dira. Izen-ematea librea da, e-mailez egiten da eta 200 bat milioi erabiltzaile dituela uste da. Mezu laburretan soilik oinarritutako erabilerak ia berehalako eguneratzea ahalbidetzen du eta horri esker, on-line hitz egiteko aukera ematen duen mundu mailako txat moduko bat da Twitter.

Haren oinarritzko atalak ez dira Tuenti eta Facebookenak bezain konplexuak:

- *Profilaren informazioan* Twitterren erabiltzailearen izena, argakia eta 160 karaktereko biografia laburra ageri dira.
- *Tweetak*. Sarearekin partekatzen diren mezuak dira. Testuak eta irudietarako edota bestelako kanpoko elementuetarako (berriak, bideoak, eta abar) loturak txerta ditza-kete, baina eduki horiek ez daude sarera bertara igota.
- *Followers* edo jarraitzaileak erabiltzaile baten mezuetan izena ematen dutenak dira. Edonor izan daiteke beste baten «follower», haren baimenaren beharrik gabe.

- *Pribatutasuna*. Mezu edo *Tweetak* izatez publikoak dira (eta bilatzaileetan indexatuta ager daitezke), baina, arrunta izan ez arren, badago *tweetak babestu* aukera, zeinek profila «itxita» (giltzarrapoaren ikurra) mantentzea ahalbidetzen duen eta onartutako jarraitzaileek bakarrik izatea mezuak ikusteko aukera.

1.4.4. Whatsapp

Whatsapp definizioz giza-sarea izan ez arren, lagunekin eta kontaktu pertsonalekin komunikatzeko erabili ohi da. Patrikako telefono inteligente edo *smartphone*-tarako bat-bateko mezularitza aplikazio bat da, aplikazioa beheara kargatu duen telefonoko agendan gordetako edonorekin kontaktuan egoteko aukera ematen duena. Berehalako mezuak doan bidali eta jasotzeko aukera ematen du eta hori dela eta, sakelako telefonoa piztuta dagoen guztian eskuragarri dagoen txat eramangarri bezala erabiltzen da. Irudiak, bideoak edo entzunezkoak ere bidali daitezke eta erabili ahal izateko patrikakoak Interneteko konexioa izan behar du edota Wifi sare batera konektatuta egon.

- *Whatsapp*-eko kontaktuak. Erabiltzaileak patrikako telefonoan gordeta dituen beste patrikako telefono-zenbakiak dira. Ez da beharrezkoa besteen onarpena zerrendan agertu ahal izateko, baizik eta bestearen telefono zenbakia gure sakelakoan gordeta izatearren bakarrik, gure zerrendan agertuko da.
- *Norberaren profilean* argazkia eta «egoera» txerta daitezke. «Egoera» nahi denean egunera daiteke, «Eskura nago, ez enbarazu egin» edota erabiltzaileak bere modura erabili nahi duen ezein esaldi edo ikur jarritz.
- *Txatak*. Banakakoak izan daitezke, bi lagunen arteko elkarrizketak direnean, edota taldekoak, hainbat lagun arteko elkarrizketak direnean. Erabiltzaileek partekatutako mezuak txataren historialean gordetzen dira eta txateko parte-hartzaileek bakarrik ikus ditzakete.
- *Konexioa*. Aplikazioak aukera ematen du jakiteko gure kontaktu bat konektatuta dagoen. Kasu honetan «linean» mezua agertzen du, adierazteko erabiltzailea aplikazio barnean dagoela edota «irekita» duela eta azkeneko konexioaren ordua eta minutuak agertzen ditu mezu baten bitartez («Azkeneko konexioa halako ordu eta minutuan»).

1.4.5. Sare sozialetako argazkiak

Gazteek giza-sareetan partekatzen dituzten argazkiez denaz bezainbatean, maizen agertutako argazki-moten ondoko deskribapena egin dezakegu:

- *Autoerretratu*. Nork bere burua agertzen duen argazkia. Profileko argazkietan erabili ohi da, baina sarritan ez da profilean txertatzeko ateratzen. Banakakoa leku ireki batean edo leku itxi batean (esaterako logela edo bainugela) egon daiteke eta argazkia egiteko kamara-tenporizadorea (objektibotik urruntzeko) erabil dezake, besoa luza dezake bere burua enfokatzeko edota irudia islatzen duen ispilu baten aurrean egin dezake.
- *Eskainitako argazkia*. Argazkia beste bati «eskaintzen» zaio, argazkian bertan testua (mezu bat edo izen berezi bat) txertatuz edota argazkia eskaintzen zaion pertsona izendatuz edo «etiketatuz». Helburua pertsona horri atsegina ematea izan ohi da.
- *Argazki sentimentala*. Sentimenduren bat adierazteko aukera ematen duen mezu erromantikoa erantsi ohi du. Maiz Interneteko bilatzaileetan aurki daitezkeen irudiak izaten dira, edota argazkigintzako diseinu-erreminten bidez propio egindakoak, irudiaren gainean testu erromantikoa atxiki ahal izateko.
- *Elkarrekin egindako argazkia*. Bikote bat irudikatzen duen argazkia da, beraz bi lagun autoerretratutzat jo daiteke. Argazki horiek, batzuetan, une intimoak agertzen dituzte, besarkadak edo musuak adibidez.
- *Argazki sexia*. Limurtzeko asmoa duen argazkia da, jarrera sentsualak, pertsona biluziak edota erdi-biluziak agertzen dituena. Batzuetan ispilu aurrean, ohean edota logelaren egiten dira.

KGAK

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

2. Ikerketaren metodologia



2

Ikerketaren metodologia

Ikerketa honen asmoa miaketa kualitatiboa egitea da. Bere helburua adierak aztertzea da eta hori atxikitzeke gazteek sare sozialak erabiltzeko dituzten moduen ulermen-maila hobetzea ahalbidetuko digun kategorien bilaketatik abiatuko gara. Horixe da kualitatiboa kuantitatiboari nagusitzearen arrazoia.

Miaketa dela azpimarratzen dugu, orain arte gutxi landutako gaia delako. Ondorioz, lehen hurbilketa honek aurrerantzean garatu ahal izango diren interes-ildo nagusiak agerian utziko ditu.

Ikerketa eredu honetan informatzaileak dira informazio-bilketaren ardatz eta haien mintzaldiak dagokigun gertakariaren ulermenerako iturri. Hori dela eta, hasierako egitasmoa espiralean garatutako abiapuntua izan zen, hau da, jasotako informazioa gure ikergaia hobeto ulertzen laguntzeko gailu bihurtuz joan zen.

Ondorioz, nola helburuak hala aurkeztutako hipotesiak ikerketaren esparruan sortutako kategorien egituraketa-prozesuaren gidari izan ziren.

2.1. IKERKETAREN HELBURUAK

Ikerketaren metodologiari jarraiki, berarekin atxiki nahi diren helburuak hauexek dira:

- Galdeketetan lortutako eta landutako edukietan oinarrituz, giza-sareek hedabide eta harreman-bide diren aldetik dituzten adierak aztertzea, baita informatzaileek sexuaren eta adinaren arabera egiten dituzten erabilerak ere.
- Genero ikuspegitik sakontzea neskontzat eta mutilentzat, adinaren arabera, giza-sareek duten garrantzi pertsonalaren ulermenean, hala nola, aurre egiten dieten arrisku, ondorio edota erasoen ezagutzan.
- Sare sozialetan ageri diren genero-desberdintasunak eta informatzaileek sexuaren eta adinaren arabera desberdintasun horiez dituzten oharpenak antzematea.

— Giza-sareetan berdintasunaren inguruko eztabaida sustatzea, bide horretatik, neskei zuzendutako ahalduntze-jarduerak bultzatuko dituzten eta gehiegikeriak edota erasoak aurreikusiko dituzten neurriak ezartzea ahalbidetuko duten elementuak eskuratzeko.

— Azterketa honetan oinarritutako hobekuntza jarduerak edota prebentziorako ildoak aurkeztea, batez ere 13 eta 17 urte arteko nerabeei zuzendutakoak, giza-garapenaren aro honetan lor baitaiteke eragin handiena prebentzio mailan.

Argibideen bilaketa zehaztasun handiagoz bideratu ahal izateko, ondorengo helburu zehatzak ezarri ziren:

— 13 eta 17 urte arteko neskek eta mutilek sare sozialak erabiltzeko dituzten modu ezberdinak aztertzea eta 25-29 urteko gazteek egiten dituztenekin alderatzea.

— Giza-sareetan partekatzen diren edukiak (argazkiak, iruzkinak, artikulua...) aztertzea, hala nola sexu-aldagaiaren arabera ematen zaien adiera.

— Neska-mutilei giza-sareen erabilerak dakartzkien zailtasunak eta onurak ikertzea.

— Batetik, komunikatzeko bide birtual honek dakartzan beharrak edota arriskuak eta bestetik, neska-mutilen taldeak adierazten dituen ondorioak antzematea.

— Neska-mutilek darabiltzaten sare sozialetan sexismoaren agerrera edo birsorkuntza aztertzea.

— Giza-sareen erabileran adinak ezartzen dituen desberdintasunak aztertzea.

2.2. ABIAPUNTUKO HIPOTESIA

Ikerketaren helburua hipotesiak baieztatzea izan ez arren, egoki ikusi genuen zenbait hipotesi aurkeztea, gutxi ikertua izateaz gain eztabaida ugari sortu duen esparru honetan argibide bilketa errazte aldera.

- *H1*. Giza-sareak neska-mutil gazteek adierazteko, elkarren artean komunikatzeko eta harremanak izateko eremuak diren heinean, estereotipatutako rolak —genero-desberdintasuna eta jokabide eredu sexistak zuritu eta eusten dituzten feminitate eta maskulinitate ereduak— birsortzeko eremuak ere badira.
- *H2*. Sare sozialetako edukiek sexismoa eta desberdintasuna birsortzen jarraitzen dute, zeintzuk era ezberdinez hautematen diren sexuaren eta adinaren arabera.
- *H3*. Sare sozialak intimitatearen adierazpenerako guneak dira, batik bat nesken kasuan, eta horrek haientzat arriskua ekar lezake, are eta handiagoa adina gutxitzen den neurrian.
- *H4*. Sare sozialetako edukiek, zenbaitetan, emakumeen aurkako sexu-indarkeria simbolikoa adierazten dute eta hau, sexu eta adinaren arabera, modu desberdinean ulertu eta birsortzen da.
- *H5*. Adinak eta garapenak dakarten eskarmentua rol sexistek gazteen artean duten eragina gutxitzen duen faktorea da.

2.3. LAGINAREN ETA ARGIBIDE-BILKETAREN EZAUGARRIAK

Ikerketa kualitatiboa denez gero, lagina ez da zenbakiei dagokienean herritarren ordezkagarri, haren helburua ez baita emaitzen orokortzea, baizik eta gertakaria ulertzea.

Lagina ez-ausazkoa da, esan nahi baita, hautaketa irizpidea izan zela parte-hartzaileek hausnartzeko eta adierazteko gaitasuna izatea eta iritzi eta ikuspuntuak ikertzaile-taldearekin trukatzeko prest egotea.

Lagina aukeratzeko bi aldagai izan ziren kontuan: sexua eta adina.

— Sexu aldagaia bi kategoriatan banatzen da: neskek eta mutilak.

— Adin aldagaiak bi kategoria jasotzen ditu: 13 eta 17 urte arteko nerabeak eta 25-29 urte arteko gazteak.

Bi aldagaiak eta dagozkien kategoriak bateratuz, lagina era honetan banatutako 88 informatzailek osatu zuten:

| SEXU/ADINA | NESKA | MUTILA | GUZTIRA |
|-------------------|--------------|---------------|----------------|
| 13-17 urte | 36 | 27 | 63 |
| 25-29 urte | 16 | 9 | 25 |
| GUZTIRA | 52 | 36 | 88 |

Lagina hasieran aurreikusitakoa baino zabalagoa izan zen, 64 informatzailetik 80ra haziz, 25 eta 29 urte arteko mutilen taldean izan ezik, zeinetan zailagoa izan zen informatzaileen parte-hartzea lortzea.

Hautatutako laginak komenientziaz aukeratutako informatzaileekin eta ikerketa taldearen kontaktuen bidez oldez etorritakoekin osatu ziren.

Adin txikikoekin kontaktua taldeen antolaketan lagundu zuen ikastola baten bidez eta giza-sareen bitartez ikerketa-taldearekin kontaktuan jarri zen aisialdi talde baten bitartekaritzaz egin zen.

Argibide-bilketaren teknikari dagokionean, ikerketarako egokitzat jo zen eztabaida-taldeen teknika erabiltzea. Bi adin kategoriaren arabera —13-17 urte eta 25-29 urte— eta sexua-ren arabera neska taldeetan, mutil taldeetan eta neska-mutil taldeetan banatutako 10 eztabaida-talde burutu ziren.

| | 13-17 URTE | 25-29 URTE |
|---------------|----------------------------------|-------------------|
| Neskak | 2 (euskaraz) | 1 (gaztelaniaz) |
| Mutilak | 2 (euskaraz) | 1 (gaztelaniaz) |
| Neska-mutilak | 3 (2 euskaraz eta 1 gaztelaniaz) | 1 (gaztelaniaz) |

Ikerketaren egitasmoa prestatzeko orduan, gazteenak baino nerabeen talde gehiago osatzea erabaki zen, pentsatu genuelako nerabeen mintzaldia gazteena baino gutxiago landua

eta ez hain sakona izango zela. Hori dela eta, azterketarako elementu gehiago edukitze aldera, egoki ikusi zen galdeketarako talde kopurua handitzea. Landa-lana egiterakoan, lan-hipotesi hau baieztatu zen.

Sexuaren arabera banatutako taldeak batetik eta sexu bereizketarik gabekoak (neska-mutilen taldeak) bestetik burutzea erabaki zen, pentsaturik agian bi molde desberdinetako taldeetan egindako adierazpenak desberdinak izan zitezkeela, sexu bereko taldekideen arteko konfiantza handiagoak eta neska-mutilen taldeetako partaideen giza-egokitzapen behar handiagoak eraginda. Hipotesi honen froga nabarmenena izan zen, beste batzuen gainetik, mutilek soilik osatutako nerabeen taldeetan agertutako jarrera sexistak eta harroxkoak. Azpimarratzekoa da halaber, mutilez soilik osatutako bi taldeetan aipatu zela Internet eduki pornografikoak behera kargatzeko erabiltzeko aukera, bestelako taldeetan aipatu ez zena, eta baita sareen abantailez hitz egitean mutilek errepikatzen zuten «ligatzeko balio du» esaldia ere.

Talde-eztabaidak aurrera eramateko aztertu nahi ziren elementuez osatutako gidoia eratu zen. Gidoi horretan sare sozialen garrantziaren eta erabileraren maiztasunaren inguruko galderak egin ziren, baita neskek eta mutilek egiten dituzten erabileren eta sareei ematen dieten esanahiaren ingurukoak edota arrisku eta ondorioei buruzkoak ere. Bestalde, sareetan arruntak diren argazkiak eta bestelako edukiak eredutzat erabili ziren, neska-mutilek haien mintzaldian balioetsi zitzaizten.


Giza-sareek idatzizko zein ahozko hizkuntzaren arauak betetzen ez dituen eta irudiak laburdura eta beste zeinu eta ikur batzuekin nahasten dituen berezko hizkera sortu dutenez gero, anglizismoak erruz darabiltzana bestalde, parte-hartzaileek erabilitako hizkerak anitzak izan ziren. Hala ere, erabilitako hizkera egunero darabiltena izan zen, baina ez giza-sareetan darabiltena. Talde-eztabaidak euskaraz (5), gaztelaniaz (4) eta aldi berean bi hizkuntzetan (1) izan ziren, mutil-talde batek euskara eta gaztelania nahastu baitzituen.

Bestalde, talde-eztabaidak burutzeko orduan, ikerketa-taldea informatzaileen ahalmenei egokitu zitzaizkien, eztabaidak parte-hartzaile guztientzat ez, baina gehienentzat hurbil zeuden lekuetan eginez. Horrela bada, Deustuko Ikastolan (Bilbo), Sortzen Consultoría-ren Deustuko egoitzan, Barakaldoko gizarte etxe baten, Getxoko Gaztetxe baten eta Lekeitioko elkarte gastronomiko baten burutu ziren.

KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

3. Emaitzak. Sare sozialak nerabezaroan



3

Emaitzak. Sare sozialak nerabezeroan

Atal honetan 13 eta 17 urte arteko neska-mutilen talde elkarrizketetan jasotako emaitzak azalduko ditugu. Hasierako egitasmoan adin-tarte hau helburutzat hartu bazen ere, informatzaile gehienek 13 eta 15 urte artean zituzten, 16 eta 17koak gutxiengoak izanik. Horregatik, talde hauek *nerabeen* taldeak izendatuko ditugu, hala beste informatzaileengandik bereizteko, nola giza-garapenaren aro honen ordezkari direlako. Hauek kokatzeko erabiltzen dugun erreferentzia geografikoa elkarrizketa burututako lekutik hartu dugu. Nahiz eta parte-hartzaile gehienak bertakoak izan, beste zenbait informatzaile inguruko lekuetatik bertaratu ziren.

Aztertutako informazioa batez beste 9 parte-hartzailez osatutako 7 taldetan banatutako (bi neskenak, bi mutilenak eta hiru neska-mutilenak) 63 informatzailearen bitartez eskuratutakoa da. Nesken bi taldeak, mutilen talde bat eta neska-mutilen bi talde euskaraz burutu ziren; neska-mutilez osatutako talde bat gaztelaniaz egin zen eta mutilez soilik osatutako batean, mutilak aldi berean euskaraz eta gaztelaniaz aritu ziren. Hauxe izan zen sare sozialetan darabiltzaten edukiez mintzatzeko orduan gaztelania lehenetsi zuen talde bakarra.

Talde-eztabaidetan bi hizkuntzak erabiltzeak txostenaren idazkeraz erabaki batzuk harrrazi zizkigun. Gure hautua informatzaileen espresarari ahal bezain zintzoen atxikitzea izan zen, ahozko adierazpena idatzizko bihurtzeak bere dituen aldaketetatik at beste ezer zuzendu gabe. Gaztelerazko taldeetan edo baita euskarazkoetan gaztelaniazko hitzen bat txertatzean ere, neska-mutilek genero maskulinoa baino erabiltzen ez zutela ikusirik (*amigos, todos, unos, conocidos...*), euskaraz buruturiko talde-eztabaidetako itzulpenetan ere genero maskulinoa erabiltzea erabaki zen. Bagenekien euskarazko hitzetan ez dagoela genero bereizketarik, baina horrela eginda nerabeen hizkera hobeto islatuko zela iritzi genion.

Dinamizatzaileek egindako galderak (testigantzetan «D»ren bidez identifikatuak) irakurketa ulerkorra egiteko beharrezkoak direnean bakarrik agertzen dira. Haiek euskaraz egindako galderak itzultzeko hizkera inklusiboa aukeratu da, horretan kontu handia izan baitzuten, zein euskaraz zein gaztelaniaz, eta horregatik garrantzizkotzat jo dugu testuan berezitasun hori agertzea.

3.1. GIZARTE SAREEN ERABILERAREN EZAUGARRIAK ETA MAIZTASUNA

Adin tarte honetan maizen erabiltzen diren sareak Tuenti eta Twitter dira, baita Whatsapp aplikazioa ere. Parte-hartzaileen gutxiengo batek *Facebook* ere erabiltzen du, baina inolako zalan-tzarik gabe, Tuenti da sexu bietako nerabeen artean arrakasta handiena duen gizarte sarea.

Etenkako konexioa egiten dute, nahiz eta gehienek adierazi egunero konektatzen direla. Hala ere, orain arteko ordenagailu bidezko konexioaren ordeztu, patrikako telefonoa da sareak erabiltzeko bide arruntena. Hortaz, gizarte sareetako konexioak ez dira etengabeko ordu luzez egiten; gehientsuetan, aldiz, saio laburrak izaten dira, eguneko edozein ordutan edota jasotako mezuen arabera.

Neska: Nik adibidez Twiterra egun osoan zehar zabalik daukat mugikorrean.

Neska: Bai, mugikorrean nik ere Tuenti eta Facebook egun osoan zehar zabalik daukat. Mugikorrean Internet daukagunez sare sozialak zabalik daude egun osoan zehar eta mezu edo komentarioren bidez abisatu egiten digute.

Neska: Ni ere, eguneha hiru edo lau aldiz sartu naiteke baina berririk ez badago berehala irten egiten naiz.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Whatsapp nik denbora guztian daukat konektatuta.

Mutila: Nik Tuenti ere egun osoa konektatuta daukat.

(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska: Konektatuta uzten dut.

Mutila: Irekita uzten dugu eta kito. Ez zara uneoro aritzen.

(Neska-mutil taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska: Nik zabalik uzten dut eta ezer berririk ez badago Tuentitik ateratzen naiz.

(Neska-mutilen taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Era honetan, gizarte sareetako konexioa haien bizitzako edozein esparrutan barneratuta dago: etxean, katean, eskola ingurunean. Ildo honetatik, esanguratsua da ikastetxe gehienetan

ko instalazioetatik gizarte sareetarako sarbidea murriztuta egon arren (Hezkuntza Sailak Tuenti eta Facebook giza-sareak blokeatuta ditu), nerabeak aipatutako sareotan sartu ahal direla, baita ikastetxean bertan ere, norberaren patrikakoaren bidez.

Adin tarte honetakoen artean nabarmena da *Twitter* norberaren adierazpide bezala erabiltzea. *Twitter*ren jatorrizko erabileraren aldean —*microblogging* eta informazio sistema—, nerabeek geroz eta modu pertsonal eta barnekoagoan darabilte, egunerokoan «egiten duten gauza oro kontatzeko».

D: Zer kontatzen duzue sareen egoeran?

Neska: *Twitter*ren gauza pilo bat (...) Izozkia jatera noa... merkatalgunera noa...

Neska: Orain komunera noa. Pause. Horixe jartzen duzu: Pause. Itzuli naiz. *Twitter* uneoro gertatzen zaizunerako da. Tuentin egoera bat jartzen duzu, eta ezin duzu beti egoerak eta egoerak aldatzen ibili.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska: Tontakeriak jartzeko erabiltzen dut *Twitter*.

Neska: Pentsatzen dudana edo egiten dudana idazteko erabiltzen dut.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Horrela bada, *Twitter*ren azkartasunak eta egunerokotasunean munduarekin lotuta egoteko ematen duen aukerak giza sare honen erabileraren aldaketa ekarri du. Nerabeek geroz eta erabilera norbanakoagoa egiten dute eta pentsamendu, sentimendu eta ekintzen adierazpena geroz eta orokorragoa da sarean.

Azkenik, *Whatsapp* aplikazioa gizarte sareei gailendu zaie gazteen artean, batez ere adiskideekin hitzordua jartzeari dagokionean. Parte-hartzaile gehienek adierazi dute *Whatsapp* horretarako soilik erabiltzen dutela eta aplikazio honek beste sare batzuk atzean utzi dituela

Neska: Azkenean gure artean gelditzeko *Whatsappa* erabiltzen dugu, erosoagoa da. Lehen sare sozialak lagunekin geratzeko erabiltzen genituen eta orain *Whatsappa* erabiltzen dugu horretarako.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

3.2. GIZARTE SAREEN ATALAK

3.2.1. Lagunen zerrenda

Alde handiak daude adiskide kopuruaren inguruan, baina orokorrean kopurua oso handia izan ohi da:

Neska: 500.

Neska: 400.

Neska: 400 eta piku.

Neska: 100 gutxi gora behera.

Neska: Gero lagun guzti hauekin ez dugu hitz egiten, erdiarekin bakarrik.

Neska: Batez ere, argazkiak ikusteko dira.

(Nesken taldea 1.13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Eta Tuentin zenbat lagun ditugu?

Neskak: Pilo bat. Nahikotxo.

D: 500 baino gehiago?

Neskak: Bai. Bai. Udaleku osoa onartuta dago. (...) Eskola osoa.

(Nesken taldea 2. 13-17 Deustu. Euskaraz)

Taldeetako parte-hartzaile gehienak bat datoz adieraztean onartzen dituzten adiskidetasun eskariak ezagutzen dituzten pertsonenak izaten direla, baina onartzen dute halaber, ez direla beti lagunak izaten, baizik eta kontaktuak, pertsona ezagunak edo lagun komun baten ezagunak.

D: Sareetan ditugun lagun horiek, nola ezagutu ditugu?

Neska: Eskolan edo kalean.

Neska: Goiko mailetakoak edo beheko mailetakoak.

Mutila: Begiz.

Neska: Edo kanpalekuan.

D: Zenbaitetan sareetan sartzan dugu harreman handirik ez dugun jendea?

Neska: Tira, norbait... arraroa dela ikusten baduzu, orduan ez, baina ikusten baduzu, hau da, berarekin hitz egin ez baduzu ere, ikusi baduzu, nik zer dakit...

Mutila: Nik lehenengo argazkiei begiratzen diet.
Neska: Ezaguna bada, orduan bai.
Mutila: Eskaria bidaltzen badizute, ikus ditzakezu (argazkiak).
Neska: Edo, zera esaten dizute: halakoren laguna naiz.
(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

D: Eta lagun hauetatik zenbat ezagutzen ditugu?
Mutila: Nik guztiak.
Mutila: Guztiak.
Mutila: Erdiak baino gehiago. Besteak lagunak dira. Nortzuk diren badakit.
D: Lagun eskaera bidaltzen duten pertsona guztiak ezagutzen dituzue?
Mutila: Bai, gutxi gora behera nondik datozen badakit. Lagunen lagunak, gau batean ezagututakoak, txortan egin dugulako...
(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Noizbehinkako sexu-harremanei buruzko ageriko aipamenak mutilez soilik osatutako taldeetan bakarrik egin ziren, behin baino gehiagotan lagun artean barretxo urduriak edota iruzkinak (trufazkoak?, sinesgabetasunezkoak?) sorraraziz. Argi geratu zaigu mutilek adierazteko modu ezberdina darabilte bakarrik daudenean eta neskekin daudenean. Talde honetako dinamizatzaileak ohar hau idatzi zuen bere txostenean.

Harroxkoak, maskulinitate eta gizontasun adierazpenak eginez, edota are beste muturrekoak nahien arabera, adibidez: «gay zara negar egiten duzulako», gay izenondoa kutsu ezkorrez erabilia. Neskarik ez dagoenean askoz ere gehiago parte hartzen dute eta askeago daudela onartzen dute.

D: Lagun hauek noiz ezagututakoak dira?
Neska: Udan, egun baten ezagutu ditut. Edo parrandan ibilitako egun batean.
Neska: Lagunak eta ezagunak dira.
(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Tuenti edo Facebookean dituzuen lagun guztiak ezagutzen dituzue?
Mutila: Bai, denak.
Mutila: Bai. Ez baditut ezagutzen ez ditut onartzen.
(Neska-mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Horrela bada, adierazi dute batzuetan kontaktuak onartzen dituztela lagun komunak dituztelako edo behin edo behin elkarrekin topo egin dutelako. Gainera, zenbait mutilek dio nesken itxurak dauzkaten lagun kopuruan eragina duela.

D: Eta zuen lagun kopurua?

Mutila: Nik, 200.

Mutila: 500 baino gehiago.

Mutila: Ia 800.

Mutila: Baina neskek gehiago dauzkate...

Mutila: Batez ere politikak badira.

(Mutilen taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz eta gaztelaniaz)

Era batera edo bestera, parte-hartzaileetariko batzuek, batez ere gazteenek, onartzen dute adiskide kopurua eta pertsonaren izen ona lotuta doazela.

D: Lagun gehiago izateak zer esan nahi du? Zer garela?

Neska: Txatxiagoak.

Mutila: Jakina.

D: Zergatik? Nik esango ba nizueke 17 lagun baino ez ditudala?

Neska: Normalki zera esaten dugu: A ze frikia!

D: Sareetan lagun gutxi izateagatik?

Neska: Bai, orain jendeak 500 baino gehiago edo hor inguruan izaten ditu eta.

Neska: Zenbat eta lagun gehiago izan, guaiagoa zara.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo)

Nahiz eta onartzen duten lagunen zerrendan dituzten kontaktu gehien-gehienak ez direla maiz hizketan aritzen diren lagun minak, horratik «lagun» deitzen diete.

Neska: Inork ez du zerrendako lagun guztiekin hitz egiten.

Neska: Nik 30-40 ingururekin hitz egiten dut.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Aipagarria da neskek oro har adierazten dutela oso sarritan jasotzen dituztela adiskide zerrendan sartzeko ezezagunen eskaerak, eta bere aldetik mutilek adierazten dutela adiskidetasun eskariak onartuko lituzketeela hauek emakumezkoenak izanez gero, haien argazkiak ikusi ahal izateko.

D: Baina normala al da horrelako eskaerak heltzea?

Mutila: Ez, ez da batere normala.

Mutila: Beno, neska bada, beharbada onartzen diot.

D: Beraz, lagun eskaera neskarena denean gauzak aldatu egiten dira.

Mutila: Neskaren arabera.

Mutila: Nik askotan baieztatu egiten ditut guztiak eta gero argazkiak begiratzten ditut.

D: Beraz, neskak politikak direnenean lagun bezala onartzen dituzue?

Mutila: Bai, argazkiak begiratzten ditugu eta hor ikusten da neska polita den edo ez.

Mutila: Argazkiengatik.

(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

3.2.2. «Egoera» gizarte sareetan

Gizarte sareetako *egoera* pertsonaren profilean lehentasunezko tokia duen mezua da. Facebooken egoera galdera honen erantzuna da: «Zer pentsatzen ari zara?» eta Tuentin: «Zer-tan ari zara?». Egoera aldatzeko maiztasuna desberdina da erabiltzaile batetik bestera. Twitter, ordea, mezu laburretan (140 karaktere) oinarritutako gizarte sarea da; hori dela eta, iruzkinak beste bi gizarte sareetan baino askoz ere azkarrago eta maizago aldatzen dira.

Taldeetan parte hartu dutenek diote Tuenti sareko egoeretan egiten edo ikusten dituzten iruzkinak zeharkako mezuak izaten direla sarri, esan nahi baita, beste norbaiti buruzko adierazpenak izaten direla, hala molde erasokorrekoak, nola molde afektibokoak.

Mutila: Irainak.

Neska: Bihar berriz ikusten bazaitut, txikitu egingo zaitut.

Neska: Bada, tira... zeharka adierazitakoak, baina guztiz ulergarriak.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska: Batzuetan horrelako gauzak jartzen dira, ez dakit, adibidez, gaur hilak 6 ditu eta norbaitek jartzen du «Maite zaitut, 6». Orduan galdetu egiten diote: A! Norekin zaude bada? Agian inorekin ez, baina hori egiten dute besteek galde diezaieten Nor? Nor?

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska: Nik mezu subliminalak idatzi ditut, beste pertsona bati zuzenduak, nire helburua pertsona hori konturatzea da.

Neska: Bikotea dudanean oso maitemindua banago beharbada horrelako argazki eta mezuak bidaliko ditut baina ez nago ziur.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Orokorrean, egoerak eguneratzeko maiztasuna asko aldatzen da batetik bestera, nahiz eta neskek maizago egiten dutela adierazi. Argitaratutako egoerak anitzak dira, baina bi sexuetakoek diote arruntagoak direla alaitasuna nahiz haserrea adierazten dutenak, tristura adierazten dutenak baino.

D: Tankera honetakoak... zera egiteko gogoia dut... ez dakit bada, gaur kokoteraino nago, jasanezina egiten zait.

Neska: Bai.

Neska: Bai.

Mutila: Ez, gutxiago. Esan nahi dut pozik zaudenekoak gehiago, baina...

Neska: Goibelak ez dira hainbeste ikusten.

D: Beraz, alaiak gehiago ikusten dituzue.

Neska: Bai.

Mutila: Horixe bai!

Neska: Edota ordenagailuarekin dagoela eta oso aspertuta dagoela.

Neska: Hori ere egia da.

D: Edota, norbaitekin errieta egin duzuenetakoak, ezta?

Neska: Uf! Tankera horretakoak asko daude.

(Neska-mutil taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Merezi du nabarmentzea, neskei dagokienean, hauek maizago hitz egiten dutela bere sentimendu eta frustrazioez eta ondorioz, mutilek baino ageriago uzten dutela bere barnea.

Neska: Bai, (neskek) euren egoeran alai edo triste dauden adierazten dute. Bere sentimenduak adierazten dituzte.

D: Eta zuek, egoeran zuen sentimenduak adierazten dituzue?

Neska: Bai, batzuetan idazten dut. Ez dut esango zer jartzen dudan baina bai gauzak idazten ditut.

Neska: Bai, mezuak bidaltzen ditut.

D: Eta mezua bidaltzen diozunari konturatu egiten da?

Neska: Bai, zer gertatzen zaidan galdetzen didate.

Neska: Kasu hauetan jendeak triste aurpegi bat jartzen dute jendeak zer gertatzen zaion galdetzeko.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Aldi berean, mutilek diote ez dutela hain sarritan sentimenduz berba egiten.

Mutila: Baina zure egoera jarri beharrean zein ekintza egiten zauden jartzen da.

Mutila: «Athletic-ek irabazi du» jartzen baduzu hori ez da pertsonala.

(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Noizbait idatzi edo ikusi al dituzue zuen sentimenduak, tristura edo alaitasuna, iritziak?

Neska: Bai.

D: Askotan pentsatzen dugu maitasunari buruzko mezuak bakarrik direla baina beste gaien inguruan ere ematen dira.

Mutila: Adibidez, atzo Athletic-eko partidua amaitzean «lotsagabea da!» idatzi zuen lagun batek bere egoeran.

(Neska-mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

3.2.3. Argazkiak

Orokorrean neskek onartzen dute argazkiak mutilek baino sarriagotan igotzea; azken hauek, aldiz, maizago etiketatzen dituztela adierazten dute.

D: Eta argazkiak igotzen ditugu?

Mutila: Oso gutxitan.

Mutila: Nire lagunek argazkiak igotzen dituzte eta bertan etiketatzen naute.
(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Normalean argazkiak edo igotzen dituzue?

Neskak: Bai, normalean astean bi argazki gutxi gora behera.

Mutilak: Nik ez ditut igotzen, besteek igo eta niri etiketatzen didate.
(Neska-mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Gizarte sareetan partekatzen dituztela dioten argazkien tipologiari dagokionean, lagunekin ateratako argazkiak dira nagusi.

Neska: Lagunekin kalean zaudenekoak eta.

Neska: Edo etxean aspertzen zarenekoak.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska: Asteburuetan igotzen ditut nire argazkiak. Lagunekin, kalean gaudenean, aspertzen garenean ateratzen ditugu.

Neska: Argazkiak ateratzen ditugu Tuentira igotzeko.

(Neska-mutilen taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska: Lagunekin argazkiak edo ispiluaren aurrean argazkiak.

Guk ez baina jendeak auto-fotoak igotzen ditu.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Autoerretratuak egiteko ohitura oso maiz ageri da nesken kasuan. Eztabaida-talde guztietan adierazi da argazki mota hau neskek egiten dutela gehienetan.

Neska: Nesken argazki gehiago ikusten ditut.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Eta horrelakoak nork uste duzue igotzen dituztela gehiago neskek edo mutilek?

Neska: Neskek.

Neska: Bai, neskek.

(Nesken taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Neskak gehiago.

Mutila: Bai, askoz ere gehiago.

Mutila: Mutilei horrelako argazkiak egitea ez zaizkie gustatzen baina neskei bai.

(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska: Autoerretratu askotxo.

Neska: Asko.

Neska: Gure argazkien % 60 autoerretratuak dira.

D: Non egiten dituzue autoerretratuak?

Neska: Etxean.

Neska: Ispilu aurrean. Komunean, logelan...

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska: Batzuetan ispilu aurrean ateratzen diren argazkiak izaten dira non gauden esateko. Adibidez, ez dakit norekin Imageko [dantzalekua da] komunean.

Baina taldeko argazkiak izaten dira.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska: Neskak, argazki gehiago ateratzen dituzte.

Neska: Mutilek kirola eta futbolari buruzkoak ateratzen dituzte.

Mutila: Neskak.

Mutila: Oso gutxi igotzen ditugu, futbolekoak, kotxeenak, futboleko botak... Neskek, mila eta piku argazki dituzte!

(Neska-mutilen taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Autoerretratua probokaziotzat jotzen du hainbat neskak.

Neska: Badago jendea argazki probokatiboak igotzen dituenak eta ondoren bere bikoteari dedikatzen dio baina argazki hauetan bere lagun guztiak etiketatuta daude. Pertsona hauen helburua zein politikak agertzen diren irakurtzea da. Neska

bati ia-ia bularra ikusten zaion argazkian neska edo mutilek zein eder agertzen den komentatzen diote, bera eskerturik agertzen da.

D: Eta mutilek ere horrelako argazki probokatiboak igotzen dituzte?

Neska: Ez.

Neska: Kamisetarik gabe.

Neska: Guk ez ditugu horrelako argazkirik igotzetzen.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Neskek euren titi edo ezpainen argazkiak ateratzen dituzte.

Mutila: Bai, eta ipurdia tente-tente jarriz ere.

(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: «Morritos» jartzen diren pertsonen argazkiak ikusi dituzue sare sozialean?

Neska: Bai.

Neska: Argazki batzuk oso sexyak izaten dira.

Neska: Lehen bularra apurtxo bat erakusten genituen argazkiak ateratzen eta igotzen genituen.

(Neska-mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Gutxi izan arren, argazki probokatzaileak neskek bakarrik egiten dituzten ideia orokortuaren aurrean, salbuespenak egon badaude.

Neska: Bai, mutilek ere egiten dituzte era horretako argazkiak.

(Neska-mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Autoerretatuak eskaintzari lotuta joaten dira zenbaitetan. Horrela bada, argazki bat ateratzea norbaiti eskaintzeko edo lagun batek autoerretatu bat eskain diezaioten eskatzea jarduera nahiko arrunta da nesken artean; mutilek, aitzitik, horrelakorik egiten ez dutela adierazten dute.

D: Zertarako eskaintzen duzue argazkia?

Neska: Argazkia erakusteko.

Neska: Edo «oso maite zaitut» eta horrelakoak esateko.

Neska: Edo aspertuta gaudelako.

Neska: Edo haren falta nabaritzen duzulako kanpalekura joan zarelako.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz).

Mutila: Bai, nik horrelako bi ditut, «nire mutil lagunarentzat» mezuarekin. Bi neskena.

(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Nortzuek bidaltzen ditu horrelako mezu gehiago, neskek edo mutilek?

Neska: Neskek.

Neska: Ez dakigu zergatik baina neskek gehiago.

Mutila: Neskak besarkatzen edo musuak ematen agertzen dira eta mutilak ez dituzte horrelako argazkiak.

D: Eta zergatik uste duzue mutilek ez dutela hori egiten?

Neska: Haiek ez dituzte musuak edo besarkadak ematen, uste dute «mariconada» bat dela.

Mutila: Taldean, bata bestearen ondoan agertu ahal gara baina musuak edo besarkadak ematen ez.

(Neska-mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Argazki kopuruari gagozkiolarik, zenbaitek, batez ere neskek, kopuru esanguratsuak erakusten dituzte sareetan.

Neska: Nik mila baino gehiago ditut.

Neska: Badago jendea 6.000 dituena. Ez ditugu denak begiratzen, ezta hurrik eman ere!

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Euskaraz)

Eta nerabeek arrunki egiten duten Tuentiren erabilera baten berri eman digute, *versus* izenez ezagutzen dena eta argazki lehiaketarekin zerikusia duena. Joko honetan bi argazki erakusten dira (gehientsuenetan neskenak) eta helburua ederrago nor agertzen den erkatzea da. Horretarako bi nesken kontaktuei gonbita luzatzen zaie izangai baten edo bestearen aldeko bozka eman dezaten.

D: Ikusi al duzue argazkirik lelo hau daramana: Zeinetan agertzen naiz ederrago?

Edo, nor da politagoa?

Neska: Bai, versusekoak.

Neska: Bi argazki igotzen dituzte, versus hitza gaineratzen diete eta bien kontaktuak aipatzen dituzte argazkiok ikus ditzaten.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Lehiaketa galduz gero, sekulako lotsa sentituko luketeela adierazi dute, batez ere beraien kontaktuetariko batek beste neskari bozka emango balio.

Neska: Ondo sentitu, ez. Ez da ondo sentitzea ala ez. Gertatzen dena da, bat-batean besteari bozka gehiago emanez gero, ahoa bete hortz geratzen zarela...

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

3.3. GIZARTE SAREEN ERABILERA ETA EDUKI BEREIZTUAK

Nerabeen gizarte sareen erabilera ohikoenak komunikazioaren eta harreman pertsonalen alorrekoak dira. Harremanak izan, kuxkuxean aritu, lagunekin hitzorduak jarri, argazkiak igo edo denbora-pasa ibiltzea dira gizarte sareen erabilpen arruntenak.

D: Zertarako erabiltzen dituzue gizarte sareak?

Neska: Lagunekin berba egiteko.

Neska: Jendearekin txateatzeko.

Mutila: Ondo pasatzeko.

Neska: Aspertzen zarenean.

Mutila: Etxeko lanak egiteko.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska: Kuxkuxean ibiltzeko.

Neska: Kuxkuxean ibiltzeko hobe da twiterra. Denbora guztian dago zerbait irakurtzeko.

Neska: Argazkien bidez nor norekin dagoen jakin dezakegu eta noiztik.

Neska: Beno hori, datu pertsonalen arabera jakin dezakezu.
(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Gizarte sareak jendea ezagutzeko erabiltzeari buruz, askok esan arren ez direla kontaktu bila propio aritzen, aitortzen dute jende berria onartzen dutela.

D: Jende berria ezagutzeko erabiltzen dituzue?

Neska: Behin edo behin pertsona horrekin topo egin baduzu, beste batekin gertuta zeundelako eta bera ere agertu delako... eta... Gauzak galdetzen dizkiozu hobeto ezagutze aldera...

Neska: Lagun batekin egon bazara eta beste lagun bat du eta harekin hitz egin duzu, bada, orduan bai.

(Neska-mutileen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Azpirarragarria da mutilek oro har gizarte sareak limurketan ibiltzeko neskek baino maizago erabiltzen dituztelako baieztapena; baieztapen hau neskek zein mutilek egindakoa da, bestalde.

D: Eta ezagutzen al duzue ligatzeko erabiltzen dituzten pertsonak?

Neska: Bai, nik uste dut ligatzeko mutilek erabiltzen dutela gehiago.

Neska: Bai, mutilek gehiago. Mutilek, sare sozialen bidez ligatzen dute neskarekin, haiekin hitz egiten hasten dira edo mezuak bidaltzen eta gero jaietan aurkitzen dira.

Neska: Bai txatetik edo kasu askotan Whatsapp dudan galdetzen didate bertatik hitz egiteko. Horrela gure telefonoa lortu dezakete.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska: Haiek egiten dutena zera da, euren profil propioetik neska bati mezuak bidali: «Hola guapa. Estás muy buena, agrégame».

(Nesken taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Neska bat bost minututan ikusten duzu kalean eta gero Tuentin bilatzen diozu. (...)

D: Beraz, ligatzeko ere erabiltzen da?

Mutilak: Bai.

(Mutileen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Esango dozu zuk zeintzuk diran gustukoen dituzun 3 gauzak?

Mutila: Ligatu ahal da.

Mutila: Ligatu ahal da.

Mutila: Ligatu ahal da.

Mutila: Ligatu ahal da.

Mutila: Argazkiak ikus daitezke.

D: Ligatu ahal da. Oso ondo, eta gutxien gustazen jatzuna?

Mutila: Batzutan ez dut ligatzen, beste batzutan itsusiak nahi dute ligatu zurekin eta beste batzutan, ez duzu jendea ezagutzen eta (...)

(Mutilen taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz eta gaztelaniaz)

Neskek batetik eta mutilek bestetik sareetan partekatzen dituzten edukietan ikusten diren ezberdintasunek arrakala digitalean nabarmendutakoaren antzeko genero-ezberdintasuna berretsiko lukete. Horrela bada, neskek arlo komunikatiboak eta gizarte harremanetarakoak darabiltzate gehien (iruzkin gehiago egiten dituzte, argazki gehiago igotzen dituzte, norberari buruzko gauza gehiago kontatzen dituzte eta sentimenduak adierazten dituzte); mutilek, oster, erabilera praktikoa eta aisirakoa ematen diete sareei. Sare sozialen bidezko harremanen kontrolaren inguruan ere desberdintasunak nabari dira.

Neskek diote sareak entretenimendu gisa, kuxkuxean aritzeko, abestiak gomendatzeko, jantzien argazkiak partekatzeko edota programa eta telesailak ikusteko erabiltzen dituztela.

Neska: Erositakoaren argazkia ateratzen dut eta ondoren argazkiaz mintzatzen gara.

Neska: Bai, Whatsapp bidez, nik erosi dudan guztiarekin..., argazkia atera eta bidali egiten dut.

Neska: Edo txat bidez igortzen dizute.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska: Programak edo serieak ikusteko erabiltzen dugu.

D: Kirol kontuak kontatzeko partekatzen duzue informazioa?

Neskak: Ez.

D: Eta jendea kuxkuxeatzen duzue?

Neska: Bai, batzuetan famosoak edo ezagunak direnak, batez ere.

Neska: Bai, batzuetan bai.
(Neska-mutilen taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutilek sareen erabilera ludikoa azpimarratzen dute:

Mutila: Futbola. Jolasak. Neskak.
(Mutil taldea 1, 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Ba, online jolasak, horrela jolasten dugu jolas ezberdinetara.
(Neska-mutil taldea 2, 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Neskek sare soziala gehiago erabiltzen dute?
Mutila: Ez erabili agian ez, baina argazki gehiago igotzen dituzte.
Mutila: Argazki askoz ere gehiago.
Mutila: Playera jolastea ez zaienez gustatzen sare sozialetan ibiltzen dira.
Mutila: Neskei gehiago gustatzen zaie.
(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Nesken eta mutilen arteko ezberdintasun nabarmenetako bat sentimenduen adierazpenaren inguruan dagoena da. Sarritan, nesken profiletan, maitasunari edo bikote-harremanei buruzko edukiak ageri dira, dela mezu erromantikoen bidez, argazkiak erabiliz edota egoeran aipamenak gehituz.

Neska: Bai, oso maiz. Maitasunari buruzko mezuok Interneten aurkitzen dituzte.
(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Mutila: «Txurri!» esanez bidaltzen dira mezu asko. Neska horrek Tuenti, Twitter eta Youtubera igotzen ditu argazkiak eta gainera eskolakoak dira.
(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska: Nik ez ditut igotzen baina etiketatzen didate honelako argazkietan.
Neska: Bai, nik txikitan honelakoak igotzen nituen, seigarren mailan, 11 urte.
(Nesken taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Badaude neskak beste pertsona batzuen harremanak plazaratzen dituztenak, bikotekidea aipatzen den egoera bat zein biak ageri diren argazkiak argitaratuz, besteak beste. Elkar musukatuz agertzen diren bikoteen argazkiak edota elkarrekin daramaten denbora atxikita daramaten argazkiak ikusten dituztela diote.

Neska: Argazkien bidez nor norekin dagoen jakin dezakegu eta noiztik.
(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Jendea norekin kateatuta dagoen jakiteko aukera ematen al digute sareek?

Neska: Era horretako gauza asko jakiten duzu argazkien bidez.

Mutila: Argazkia igotzen badute, dagoeneko egoeran jarri dutelako da, txataren bidez adierazi dizutelako...

Neska: Azkenean dena jakiten da.

Neska: Ezaguna bada, berehalaxe jakiten dugu, partekatzen ditugun kontaktuen egoeren bidez.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

D: Eta pertsona hauek sare sozialean beren egoera azaltzen dute argazkiak musukatuz, besarkatuz ,...?

Neska: Bai, ez dakit nor ez dakit norekin konprometitua dago.

Neska: Bai argazkiak jartzen dituzte.

D: Jende askok horrelakoak egiten ditu?

Neska: Bai, gehienek.

Neska: Gehienek argazki bat gutxienez badute bere bikotearekin.

Neska: Batzuk egunero igotzen dituzte argazkiak mutilarekin.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Neskek igotzen dituzte normalean.

(Neska-mutilen taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska: Bikotea musu bat ematen agertzen den argazkia igotzen dute eta «Zein zorionsua naizen» idazten du. Jende guztia enteratzea nahi du ezin da berarentzat bakarrik gelditu.

(Neska-mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Hilabete egin dugu, bi hilabete... horrelako argazkiak. Bikotea izatekotan, horrelako argazkiak aterako zenituzketen?

Neska: Bai, seguraski.

Neska: Bai, politak dira.

Neska: Niri ateratzen badidate bai.

(Nesken taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Garrantzitsua da azpimarratzea parte-hartzaile gehienek uste dutela harremanak eta sentimenduak erakusteko joera hau askoz ere arruntagoa dela nesken artean eta ia-ia ez dela gertatzen mutilen artean. Honek generozko estereotipo tradizionalen arabera gizarte sareen erabilera bereizturako joera baieztatuko luke.

D: Eta zer uste duzue neskek edo mutilek idazten dituztela horrelako esaldiak?

Neska: Nik ez ditut horrelakoak egiten baina normalean neskek igotzen dituzte.

Neska: Neskek.

D: Eta mutilek ez dute euren egoeran sentimenduak adierazten?

Neska: Ez.

Neska: Ez.

D: Maitasunari buruzkoak ez baina beste zerbaiti buruzkoak?

Neska: Mutilek argazkiak igotzen dituzte baina kirolari buruz, maitasunari buruzkoak ez.

(Nesken taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Maitasunezkoak ez (ditut argitaratzen) baina bestelakoak bai, «PlayStationa kendu didate.

(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Bestalde, harreman afektiboak gizarte sareetan publiko egiten dituzten argazki eta mezu zuzenez gain, «egoera»ri dagokion atalean harreman bat hasi edo bukatu izana adierazten saiatzen diren zeharkako mezuak ere ageri ohi dira.

Neska: Bai. Tankera honetako mezuak idazten dituzte: ezkongabea baina akats gabea; edo horrelako zerbait. Benetan.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska-mutil nerabe gehienek bikote-harremanetan eskarmentu handirik izan ez arren, konturatzen dira sare sozialak bikotekidea kontrolatzeko modu bat izan daitezkeela. Errealitatean edo birtualitatean ezagutzen dituzten pertsonengan, esaten diren gauzetan, ahopekoe-tan... oinarrituta, esaten dute sare sozialak bikotekidea kontrolatzeko erabil daitezkeela, nahiz eta haien ikuspuntutik, kontrol hau ez dagoen generoari lotuta. Bestetik, neskek zein mutilek neurri berean egiten dute.

Neska: Bai, pertsona bat ezagutzen dut. Bikoteak debekatu egiten dio pertsona batzuekin hitz egitea edo mehatxatu egiten dio ez dakit norekin hitz egiten badu.

Neska: Bai, nik ere ezagutzen dut pertsona bat. Baina orain dela asko gertatu zitzaion.

D: Baina kasu hauek zer ematen ziren neskak mutilari debekatzen ziola edo mutilak neskari?

Neska: Ez ez, mutilak neskari.

Neska: Baina neskak zuzenean ez zion debekatzen baina batzuetan bai komentatzen zion norekin ez hitz egitea hobe zela.

Neska: Neskak mutilari esaten zion nik ezagutzen dudana.

(Neska-taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Baina nire lagunaren artean bai ikusi dut.

D: Eta ondo deritzozue?

Mutila: Ez.

Mutila: Zergatik neska lagunak esan behar dio bere bikoteari bere lagun minarekin ez hitz egiteko?

D: Nork uste duzue egiten duela horrelako gehiago mutilak edo neskak?

Mutila: Neskak. Haiek gure artean haserretzea eragiten dute eta azkenean nire lagunekin haserretzen naiz.

Mutila: Mutilak eta neskak.

(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Haatik, neskek zein mutilek kontrol-egoerak ezagutzen dituztela esan arren, bi neska izan ziren onartu zutenak haien bikotekideak mutil-lagunen inguruan iruzkinak egin izana, bai harremana gaitzesteko eginak, bai kontuz ibiltzeko gomendioak. Neskentzat, ordea, iruzkin horiek ez zuten kontrolarekin zerikusirik.

D: Adibidez, noizbait esan dizuete «lagun bezala mutil hori daukazu eta niri mutil hori ez zait batere gustatzen». Edo zure mutil ohia dena.

Neska: Niri noizbait bai esan didate.

Neska: Gelan mutil bat dago eta mutil hori nirekin ligatzen ibiltzen da. Mutil lagunak ez dit debekatu berarekin hitz egitera baina kontuz ibiltzeko gomendatu nau.

D: Eta zuek noizbait esan diozue inori norekin hitz egin behar duen eta norekin ez?

Neska: Ez.

Neska: Ez.

Neska: Nirekin egon nahi badu nik ez dut derrigortzen nirekin egotea beraz ez diot esan norekin ibili edo norekin ez.

(Nesken taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska batek honela azaldu zuen bikotekideak bere gizarte sareetako pasahitza erabiltzen zuela bere nortasuna lapurtzeko:

Neska: Nik behin eman nion eta nire klaseko mutil batekin hitz egiten hasi zen, ni izango banintz bezala. Baina berak ere bere kodea eman zidan nik pixka bat kuxkuxeatu nuen eta listo.

(Nesken taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Bitartean, mutilak zut ageri dira nesken kontrolaren aurrean, ekidin beharreko zerbait bezala...

D: Eta neska lagunak pasahitza eskatzen badizuete?

Mutila: Ez, ez, ez.

Mutila: Neska lagunari pasahitza ematekotan, orduan akabo.

(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Nik nahiago nuke bikotekidea sare sozialetan edukiko ez banu, baina «horrela da».

Mutila: Inoiz ez nioke utziko kontrolatzen norekin hitz egin dezakedan eta norekin ez. Elkarren lagunak izan zitezkeen.

(Mutilen taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

... Zenbait neska zalantzakor ageri dira gai honen inguruan...

D: Zuen pasahitza eskatzen badizue emango zenioketen?

Mutila: Ez. Egunen baten haserretzen bagara nire kontuan sartu daiteke eta edozer gauza egin.

Neska: Ez.

Neska: Berak berea ematen badit beharbada bai.

(Neska-mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

... eta pasahitzak trukatzeko aukera onargarritzat jotzen dute, harremanean jarritako konfiantzaren erakusgarri.

3.4. SARE SOZIALEN ARRISKUAK

Neskek zein mutilek onartzen dute sare sozialak eremu arriskutsua izan daitezkeela, nortasunaren lapurreta dela, zurrumurruak direla edota baita erasoak direla ere. Nortasunaren lapurreta edo kontua *hackeatzearen* inguruan, kasu asko ezagutzen dituztela diote eta hori gerta dakiekeen beldur direla.

Neska: Lotsa emango zidan nire mezu pribatu guztiak norbaitek ikustea.

Neska: Ni beldurtu egingo nintzateke.

Neska: Jakitea norbait nire kontuan sartu dela... beldurra ematen dit. Nor sartu den jakin nahiko nuke.

(Neska-taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Lehen esan duzue zuen kontuan ezagutzen ez duzuen jendea sartu dela, ez zuek izango bazinete bezala egin dute, zer sentiarazi dizuete?

Neska: Urduritasuna.

Mutila: Haserrea eta ia zer jartzen duen kezkarakin.

(Neska-mutil taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Sareek ahalbidetzen duten nolabaiteko anonimotasunak bertan adierazten dena (bai hitzak, bai irudiak) errealitatean baino gutxiago iragaztea dakar. Errealitate birtualak aurrez aurreko komunikazioan onartuko ez liratekeen jarrera eta jokabideak zilegiztatzeko dituzte. Hori dela eta, kanpoko norbaitek eduki horiek eskuratzea eta ezagutzera ematea mehatxu handienetako bat da; nerabeek behinik behin, sareetan adierazten dutenaren gainean ez dute kontrol handirik ezartzen.

Bestetik, talde-eztabaidetan nabarmendu zen parte-hartzaile gehienek iritziz, neskek eraso eta irain gehiago pairatzen dituztela sare sozialetan, batez ere haien irudi pertsonalari edo itxura fisikoari dagokionean.

Neska: Ez zaituzte iraintzen, baina...

Neska: Ongi agertzen zaren argazkian ez dizute ezer esaten (...). Baina, hurrengo argazkian gaizki agertzen bazara... edozein gauza jartzen dute.

(Neska-mutil taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

D: Inoiz sare sozialen bidez iraindu dizute?

Neska: Bai. Nire lagunak ez ziren eta kontaktuetan ere ez zeuden. Kurtso osoa sartu zen eduki genuen liskarrean.

Neska: Beno, bai.

(Neska-taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska: Ezagutzen dugun mutil batek gure lagun bati mezu gehiegi bidaltzen zizkion. Mezu hauek bere ipurdiari, gorputzari, etab. buruzkoak ziren.

(Neska-mutil taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Noizbait zuei buruzko zerbait irakurri duzue eta txarto sentitu zarete?

Neska: Bai. Ezagutzen ez zidaten pertsonak niri buruz hitz egiten hasten ziren eta azkenena, ni txarto irteten nintzen argazki batean eta desetiketatu nintzen baina ez nuen ezer esan. Eta argazkian agertzen ziren bi mutilak tontakeriak esaten hasi ziren. Hasieran min egiten zidaten komentarioek baina gero ez.

(Neska-taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Irainek aurrez aurre ala gizarte sareetan egiten ote duten min handiagoa galdetuta, neska batzuek erantzun zuten gizarte sareetan egindako irainek garrantzi handiagoa dutela, dalkarten mesprezu publikoa dela eta.

Neska: Niri aurrez aurre esaten didatenean berdin dit, egoera horretan erantzutea baduzu eta. Adibidez, arbelean, zuk zerbait adierazten baduzu, berak beste zerbait adierazten badu eta gero bere lagunak badatozkizu, ezin duzu ezer egin.

Neska: Esaterako, txatean zuk pentsa dezakezu «ongi da, zoaz popatik hartzera» eta akabo, baina gauzak arbelean hasten badira, orduan...

D: Beste zerbait da, ezta?

Neska: Bai, jende guztiaren ahotan dagoelako.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Mutila: Ez, idatzia dagoenean min gehiago egiten du.

Mutila: Aurpegira ez dizulako esaten.

(Neska-mutil taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neskek iraingarrientzat jotzen dituzten iruzkinak emakumeen gorputzari buruz egiten direnak dira, nahiz eta ez dituzten ezinbestean erasotzat jotzen, eta gehien gogaitzen dituena kontrolik gabe hedatzen direla da, noraino hel daitezkeen jakin gabe. Dena den, beldur honek ez die argazkiak igotzen jarraitzea eragozten. Bestalde, bai neskek, bai mutilek diote badakitela nola salatu argazki bat edo erabiltzaile bat sare sozialen bitartez.

Ezegagunekin gizarte sareen bitartez izan daitezkeen kontaktuen inguruan maiz hitz egin ez bazen ere, talde baten gai hau aipatu zen:

D: Inoiz gelditu al zarete ezagutzen ez duzuen pertsona batekin?

Neska: Ez.

Neska: Beharbada jende gehiagorekin banoa bai, baina bestela ez.

Mutila: Ez.

Mutila: Ez.

D: Beraz, zu lagunekin joango zinateke ezagutzen ez duzun pertsona bat ezagutzera?

Neska: Agian, ezagutu dudan pertsona jatorra bada joango nintzateke.

(Neska-mutil taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Gizarte sareen bidezko nahigabeko kontaktuak direla eta, bi mutilek adierazi zuten sexu edukia zuten mezuak jaso zituztela. Hala ere, gehienek diote neskak direla helburu sexual argiko zein sotileko kontaktu saiakerak jasotzen dituztenak.

Neska: Askotan titiak erakusteko mezuak heltzen dira. Niri ez zaizkit horrelakoak heldu baina ezagutzen horrelakoak jaso dituenak.

Neska: Bilbokoa naiz nirekin itzartu nahi zara? Nire pitilina erakusten dizut, zuk zure titiak erakusten dizkidazu.

Neska: «Hola wapa» jartzen badute berehala ezeztatzen diot.

Neska: Horrelako mezuak askotan heltzen dira, egunean bi aldiz gutxi gorabehera.

Neska: «Bidali al didazu barruko arropan agertzen zaren argazki bat?» bezalakoak bidaltzen dute.

(Neska taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

D: Inoiz saiatu al da ezezagunen bat zuekin harremanetan jartzen gizarte sareen bitartez?

Mutila: Ez.

Neska: Bai.

Neska: Eskariak bidaltzen dizkizun jendea badago.

Neska: Hainbat zerri badabil bazterretan...

Neska: Nik Ana izena duen bat ezagutzen dut eta honi zera bidali zioten: Aizu, andreder, astindu eder bat hartu nahi al duzu?

Neska: Eskarian horrelako zerrikeriaren bat jartzen badu, neure baitan «zikin alua»! esan, ezikusi egin eta kito.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska: Niri mutil batek bere argazkiak eskaini zizkidan eta nora bidaltzeko esan zidan. Nire lagun baten laguna zen eta Whatsappez bidali zidan argazkia.

D: Nolakoa zen argazkia? Bere aurpegia bakarrik agertzen zen?

Neska: Ez, mutila kamiseta gabe agertzen zen, ez zitzaidan batere gustatu eta jarraian ezabatu egin nuen.

(Neska-mutil taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Ildo honetatik, aipagarria da neskei galdetzen zaienean ea sexu-eskaririk jaso duten gizarte sareez baliatuz, gehienek baiezkoa erantzuten dutela. Era berean, eduki sexistak ikusi izan dituztela adierazi dute, bai argazki itxuran, bai emakumeei buruzko mezu itxuran:

Neska: Horrelakoak nik ikusi ditut.

Neska: Nire lagun batengatik horrelakoak entzutea lotsa ematen dit.

Neska: Bai, molestatu egiten dute.
Neska: Ba, niri berdin zait.
Neska: Ba ez dizu berdin eman behar.
(Neska-taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Nahiz eta bai mutilek, baita neskek ere onartzen duten orokortze sexistak egiten dituztela:

D: Inoiz ez duzue Tuentin idatzi edo komentario bat partekatu «mutil guztiak berdinak dira» bezalakoak?

Neska: Bai, agian egun batean mutil batekin haserretzen naiz eta horrelakoak idazten ditut.

Neska: Bai.
(Nesken taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Neskek askotan esaten dute mutil guztiak berdinak garela.

D: Beraz, zuek kexatu egiten zarete baina zuek ere horrelakoak esaten dituzue.

Mutila: Sare sozialetan, batzuetan agertzen dira. «Las chicas son unas cabronas» bezalako mezuak irakurri ditut.

(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Nik neskei buruzko txisteak irakurri ditut sare sozialetan, emakumeei buruzko txiste txarrak.

(Neska-mutil taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Arriskuak denentzat nabariak diren arren, errealitate birtual horren gaineko kontrola dutela uste dute, nahikoa baita kontaktua ezabatzea iruzkin sexistak edo erasoak ezabatzeko. Era honetako iruzkinak hain ohikoak izatea errealitate birtual horren alderdi den heinean onartu egiten dute, honek etengabeko konexioaren abantaila eskaintzen baitie.

3.5. MUNDU BIRTUALAREN ETA BENETAKOAREN ARTEKO ALDEA

Zenbaitetan aipatu dute, pertsona batzuek, egiten dituzten iruzkinen eta egoeraren eguneratzeen bidez, gizarte sareetan erakusten duten irudia eta bizitza errealean duten jokabidea desberdina dela.

Neska: Twitterreko bere biografian agertzen dena eta aurrez aurre duen jokabidea guztiz desberdina da.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska: Ezagutzen dugun neska bat oso-oso lotsatia da eta ez du ezer ere ez hitz egiten, baina sare sozialen bitartez jendearekin hitz egiten du.

D: Eta pertsona honek igotzen dituen argazkiak nolakoak dira?

Neska: Argazki oso arraroak ere igotzen ditu.

Neska: Bere bikotearekin egiten duen guztiaz enteratu gara Tuenti bidez.

Neska: Neska hau oso lotsatia da errealitatean baina gero, sarearen bidez, igotzen dituen argazkiak eta egiten dituen komentarioak oso arraroak dira. Nik egingo ez nituzkeen gauzak egiten ditu.

Neska: Errealitatean modu batekoa dela uste duzu baina gero sare sozialetan egiten dituen komentario eta argazkiak beste pertsona batenak direla dirudi.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Diotenaren arabera, gizarte sareek benetako bizitzan esatera ausartzen ez diren gauzak esatea errazten omen dute, ausartago izatea ahalbidetzen dute.

Neska: Gizarte sareetan hazi egiten zara.

Neska: Zuk buruz buru ez diozu esango: Hara, mutil, larunbatean ikusten bazaitut, zaplazteko bat emango dizut... Twitterren eta Tuentin bai.

(Neska mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Sentimenduekin ere horixe gertatzen da eta errazago da «maite zaitut» esatea gizarte sareez baliatuz, ezen aurrez aurre esatea baino. Izan ere, gehienak bat datoz adierazpen hau maizago erabili eta irakurtzen dutela gizarte sareetan, benetako bizitzan baino.

Neska: Tira, bai, «oso maite zaitut» idazten duzu. Baina ez duzu izenik jartzen, azken finean ez duzulako hemen edukiko gustuko duzun mutila. Egunero berekin egonik «gustuko zaitut, oso maite zaitut» esaten diozu? Ez horixe.

Neska: Txatean, lagun bat agurtu aurretik, zera esaten diozu: Agur, maite zaitut. Baina ez da beti benetako «maite zaitut» bat izaten, ondo geratzeko egiteko duzu. (...) Beste askok egiten duten bezala, ez dituzu apenas ezagutzen eta hala ere, hauxe esaten dizute: «agur, maite zaitut, laztana»... eta gero, benetan... Ez dira gauza bera (sareetan idazten dena eta benetan sentitzen dena).

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

D: Zer nolako gauzak esaten ditugu sareetan aurpegira esaten ez ditugunak?

Mutila: Maiteminduta zaudenean.

Mutila: Gauza bereziren bat.

(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska: Noski. Tuenti bidez, gauza gehiago esatera ausartzen zara. Kasu askotan pertsona bati ezin diozu aurpegira esan sentitzen duzuna edo pentsatzen duzuna, orduan sare sozialen bidez esaten diozu.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Era berean, adierazi dute halako frustrazioa senti ohi dutela komunikazio birtuala eta benetakoaren arteko desberdintasun hau dela eta.

Neska: Ba, niri horrelakoak gertatu zaizkit. Mutil batzuek txataren bitartez hitz egiten didate eta gero ez didate kaletik agurtzen.

Neska: Edo Tuenti bidez hitz egiten dizu eta gero ez da ausartzen aurpegira ezer esaten. Niri askotan gertatzen zait.

Neska: Askotan pertsonak ez dira sare sozialetan agertzen diren bezala...

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Bai, jendea badago oso faltsua dena.
(Mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska: Pertsonaren arabera. Batzuetan kaletik agurtzen duzun pertsona batekin Interneten bidez gehiago hitz egin dezakezu.
(Neska-mutilen taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Neska: Nik Nafarroako mutil batekin askotan hitz egiten dut Tuenti bidez eta gero aurrez aurre ikusten garenean ez dugu hainbeste hitz egiten. Hau askotan gertatzen da. Sare sozial bidez asko hitz egin eta gero aurpegira ezer ez esan lotsa dela eta. Ez da jende faltsua dela... beno bai.
(Nesken taldea 2. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

3.6. GIZARTE SAREEN GARRANTZIA

Orohar, neska-mutilek sare sozialak denbora-pasarako, komunikatzeko eta harremanak mantentzeko garrantzitsuak direla diote.

Neska: Komunikatzeko bide garrantzitsuena, nahiz eta oporretan egon etengabe konektatuta nago.
(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Mutila: Nik garrantzitsua dela uste dut. Tira, ez oso-oso garrantzitsua, baina esaterako, gauzak galdetzeko balio du. Zerbitetarako balio du. Erabilgarria da.
(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Galdera hau eginda, neska batzuek, nahiz eta ez gehienek, komunikatzeko era honekin katramilatuta daudela adierazi dute.

D: Bihar bertan giza sare guztiak bat-batean desagertuz gero?

Mutila: Bat-batean!

Neska: Ondoezik jarriko nintzateke!

D: Nola sentituko zinatekete?

Neska: Gaizki, batetik ezin izan duzulako ezer ezabatu... eta desagertzen badira, zure gauza guztiak hor daudelako.

Neska: Bada, nahiko gaizki, zure datu guztiak hor daudelako.

Neska: Bat-batean... pilulekin gertatzen dena gertatzen da, ezin dituzula kolpean utzi.

Mutila: Horrela ohituko zinateke telefono deiak egiten, mezuak bidaltzen...

Neska: Bai, baina bederen gutxinaka-gutxinaka uzten joan, hor uzten dituzu zure argazki guztiak eta beste gauza guztiak eta.

Neska: Bat-batean guztiez guztia dakizu eta gero, kolpean, ez dakizu ezer. Besteek ere ez dakite zuk haiek jakin dezaten nahi duzun ezer.

(Neska-mutilen taldea 3. 13-17 urte. Barakaldo. Gaztelaniaz)

Neska: Buf, hasiera baten txarto. Gero denborarekin ohitu egingo ginатеke.

Neska: Tuenti nahi badute kendu dezakete baina Twiter ez, mesedez.

Neska: Whatsapp gabe hilabete bat, ezinezkoa da.

(Nesken taldea 1. 13-17 urte. Deustu. Euskaraz)

Beraz, garrantzi handirik ematen ez dietelako itxura eman arren, giza-sareak neska-mutilen egunerokotasunaren zati bihurtu dira, haien adierazpide nagusia dira. Gainera, konexio sarkor, azkar eta etengabeko hau aisialdirako, hurkoekin harremanak izateko, komunikatzeko eta besteekin konektatuta sentitzeko bitarteko goiena da.

KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

4. Sare sozialak gazteen artean



4

Sare sozialak gazteen artean

Atal honetan 25 eta 29 urte arteko neska-mutilen talde elkarrizketetan jasotako emaitzak azalduko ditugu. Talde eta parte-hartzaile hauek beste informatzaileengandik desberdintzeko, gazte izendatuko ditugu. Hauek kokatzeko erabiltzen dugun erreferentzia geografikoa elkarrizketa burututako lekutik hartu dugu. Nahiz eta parte-hartzaile gehienak bertakoak izan, zenbait informatzaile inguruko lekuetatik bertaratu ziren.

Guztira hiru talde burutu ziren: nesken talde bat, mutilen bat eta neska-mutilen beste bat. Guztiak gaztelaniaz egin ziren eta 25 gazte bildu zituzten.

4.1. SARE SOZIALEN ERABILERAREN EZAUGARRIAK ETA MAIZTASUNA

25 urtetik 29rakoen artean gehien erabilitako sarea Facebook da, eta honen ondotik Twitter eta LinkedIn. Zenbait parte-hartzailek adierazi dutenez oraindik ere Tuenti badute, baina ez dute erabiltzen.

Neska: Aspaldian ez darabilt Tuenti.

Neska: Nik ere badut Tuenti, baina aspaldi utzi nion erabiltzeari.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Izan ere, sarritan errepikatzen den adierazpena da duela urte batzuk eta orain egiten duten Tuentiren erabilpena desberdina dela eta gaur egun sarean dituzten harremanak Facebook bitartez egiten dituztela. Sare sozialak ligatzeko erabiltzen ote dituzten galdetuta, edota argazkiak igotzeari buruz eta ezezagunek luzatutako adiskide-gonbidapenei buruz hitz egitean, parte-hartzaile batzuk adierazi dute era horretako jarrerak arruntagoak zirela Tuentin.

Nerabeen artean gertatzen den legez, gazteak ere etenka, patrikako telefonoaren bitartez eta aldi laburrez edo kontaktuen mezuei erantzuteko konektatzen ohi dira.

Neska: Nik gehienetan patrikakoan erabiltzen dut. Batzuetan, aspertuta banago, gosaltzen ari naizelarik ere nahi gabe begiratzen diot; zerbait eskegi, tontakeriak idatzi edo norbaiti zerbait esaten diot. Ez dut Facebook ireki eta bertan bi ordu igarotzen. Ordenagailua irekitzen dudanean, gehienetan, beste zerbait, gauza zehatzen bat egiteko izaten da.

Neska: Patrikakoak aukera ematen dizu hor zehar zabiltzanean zeure buruari argazki bat egin eta segundu baten buruan Facebooken agertzeko. Argazkiak igo eta unean bertan komentatzen dira.

(Nesken taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Horrela bada, adin tarte honetan ere sare sozialak bizitzako ezein esparrutan erabiltzen dira: lanean edo ikasten dihardutela, etxean, kalean, oporraldietan eta aisialdian. Izan ere, batzuek diote jaiki eta berehala edo lanean hasi orduko erabiltzen dituztela sare sozialak.

D: Badago hemen inor goizean esnatu eta egiten duen lehenengo gauza Facebooken begiratzea dena?

Mutila: Bai. Ordenagailua piztuta egoten da, lau pestaina ditut eta banan-banan irekitzen joaten naiz. Emailak eta Facebook.

Neska: Nik gauza bera egiten dut, baina ohetik begiratzen dudana Facebook, egunkaria, Groupon, Groupalia eta Privalia izaten dira.

Neska: Bai, nik ere gauza bera egiten dut. Ohetik jaiki aurretik Facebook begiratu eta eguneratzen dut.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Adin tarte honetako taldeen mintzaldian nabarmena da Whatsapp aplikazioak duen garrantzia norbanakoen arteko harremanei dagokionean. Diotenez, askok Facebook erabiltzeari utzi dio eta hitz egiteko Whatsapp erabiltzeari ekin. Ildo honetatik, aipagarria da etengabe konektatuta daudela sentitzen dutela, mezu guztiak jasotako instantean bertan erantzungo direlako aurretizta dutela eta bidaltzen eta jasotzen diren mezu kopurua, batzuetan gehiegi dela.

Neska: Guk orain horretarako Whatsapp erabiltzen dugu, talde bat dugu lagunartean eta uste dut ez direla 15 minutu igarotzen inork zerbait idatzi barik.

Neska: Jo! Beldurgarria da. Facebooken igarotzen ez dugun denbora, orain Whatsapp daukadanez...

(Nesken taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Mutila: Nik Whatsappen taldeak ditut eta mezuak etengabe sartzen dira, gogaitu egiten nau.

Mutila: Niri gustatzen zait Whatsapp, baina egia da nardagarria dela norbaitekin zaudenean bestea etengabe zorioneko mezutxoekin aritzea.

(Mutil taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

Neska: Batzuetan itogarria da. Hainbeste talde, hainbeste ipuin... Azkenean ez duzu inoren berri izan nahi. Jendea etengabe idazten ari da, azkenean badirudi sakelakoarentzat bizi zarela.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Whatsapp da egunerokoan lagunekin berba egin edo geratzeko erabiltzen diren komunikabide tresnen artean gailentzen dena, hainbesteraingo ezen erabiltzen ez duten pertsonak, era batean edo bestean, kanpoan gelditzen diren.

Neska: Baina Whatsappik ez baduzu, gauza askoren berririk ez duzula ere senti dezakezu. Guk badugu lagun bat ez daukana eta batzuetan ahaztu egiten zaigu berari esatea Whatsappen ahotan erabilitako zenbait gai.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Aldi berean badirudi onartzen dutela eta jakitun direla hainbatetan, *online* erako batbateko komunikazio modu honek beste gauza batzuez kontu ez edukitzera daramatzala.

Neska: Zu ez zara konturatu zenbaitetan lagunekin taldean egon arren, komunikatuta ez zaudela?

Neska: Bai horixe. Batzuetan talde bat ikusten duzu eta nor bere patrikakoari begira ari da.

Neska: Ni saiatzen naiz uneoro hari begira ez egoten, baina batzuetan gertatzen zait jendearekin nagoela eta aldi berean beste norbaiti erantzuten, edota haiek alde batera utzi eta neureari ekiten diodala.

Neska: Lehen jendea ez zen egiten zuena edo pentsatzen zuena uneoro adierazten aritzen, baina orain... Egia esan ondo ere badago, entretenitu egiten zara eta. (Neska taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Hauetaz honela, nabaritzen da *online* gehiegi egoteak aurrez aurreko komunikazioari lotutako beste arlo batzuetan *offline* egotea ekar dezakeela.

4.2. GIZARTE-SAREEN ATALAK

4.2.1. Lagunen zerrenda

Batzuen esanetan, daukaten adiskide-kopurua nerabe taldeek adierazten duten kopurua baino txikiagoa da eta beste batzuen esanetan «garbiketak» egiten dituzte harreman sakonegia ez duten kontaktuak ezabatuz.

D: Zenbat lagun dituzue sare sozialetan?

Neska: Nik behin garbiketa egin nuen...

Neska: Nik ere garbiketa egiten dihardut irizpide baten arabera: kalean ikusi eta «agur» baino esaten ez didan jendea poliki-poliki ezabatzen ari naiz.

Neska: Badago jendea orain dela mila urte ezagutzen duzuna, baina inoiz ez duzuna adiskidetasun sakonik eduki.

Neska: Eta baliteke harreman sakonagoa izaterik nahi ez izatea, ezta zure gauzak ikus ditzaten ere.

Neska: Nik garbiketa egin behar dut, 200 lagun inguru dauzkat, 150 ezabatuko ditut eta 50 mantendu.

Neska: Nik 500 baino gehiago.

Neska: Nik 300 baino gehiago, nahiz eta noizbehinka garbiketa egin.

(Neska taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

D: Zenbat adiskide dituzue sare sozialetan?

Mutila: Gutxi. Ja, ja, ja.

Mutila: Nik 80 bat ditudala uste dut.
Mutila: Bai, nik ere 100 bat ditut.
Mutila: Nik ez daukat ideiarik ere.
(Mutil taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

Ustez hauen artean ere nagusi den iritzia da neskek direla sare sozialetan kontaktu gehien dituztenak.

Haien esanetan kontaktuen artean dituztenak adiskide estuak, koadrilako jendea, jende ezaguna, lankideak edo senitartekoak dira. Baina azpimarragarria da parte-hartzaile batzuek haien kontaktuen artean sartzen dituztela ez bakarrik eta soilik «lagunak» direnak, baizik eta beste kontaktu batzuk, hala nola, entitateak, elkarteak, enpresak, lan munduko kontaktuak edo haien zaletasun eta interesei lotutakoak. Horrela bada, adin tarte honetako pertsona batzuek sare sozialetako kontaktuen artean nahas-mahas dituzte norbanako bizitza, interesak, ikasketak, lana eta gizarte-jarduerak. Horrek adierazten diguna da gazteen artean, nerabeen artean ez bezala, sare sozialen erabilera ez dela intimoa eta norbanakoa soilik eta gai direla adiskide motak edo kontaktuak bereizteko hori ahalbidetzen duten sareetan, esaterako Facebooken (Tuentik ez du lagun motak bereizten uzten).

Neska: Ez gehiegi, hirurogei inguru.
Neska: Ehun bat.
Neska: Ehun bat.
Neska: Hirurogei bat.
Neska: Laurehun baino gehiago, baina horietako asko hainbat enpresa, elkarte eta ekimen dira.
Mutila: Nik akats bat egin nuen, bere garaian ez baintuen bi kontu egin eta gaur egun lana eta bizitza pertsonala nahas-mahas ditut.
D: Beraz, zuk nabaritzen duzuna da lana eta bizitza pertsonala nahasi egiten zaizkizula.
Mutila: Bai.
Neska: Facebooken aukera duzu jendea taldeka banatzeko. Lagun guztiak talde batean jar ditzakezu eta hori arlo pribatuan geratzen da, non argazkiak eta abar ikus daitezkeen.
(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Neska: Kilikatzen nauten eta gustuko ditudan ilustratzaileak ere baditut nik eta adiskide moduan txertatzen ditut soil-soilik egiten ari direna ikusi ahal izateko, sarritan bere lana eskegi egiten dute eta.

(Neska taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Orokorrean, mutilek esaten dute ez dutela jasotzen ezezagunen adiskidetasun eskaririk. Bestetik, bai neskek, bai mutilek diote ez daukatela arazorik eskariok errefusatzeko, haien sare sozialaren gaineko kontrola erakutsiz.

Neskek ezezagunen eskariak jasotzen dituztela onartzen dute, baina ez dirudi zailtasunik dutenik haiei ezetz esateko eta Tuentin jokabide hau arruntagoa zela adierazten dute.

Neska: Bai, baina ez ditut inoiz onartzen

Neska: Hasieran, inozoa ni, agian onartu egiten nuen eta mezua igortzen nion esanez «aizu, barkatu baina ez naiz oroitzen, nor zara?», agian izen oso ezaguna zuelako, eta ezagutzen nuela, baina oroitzen ez nintzela pentsatuz. Mezua igorri eta erantzuten ez bazidan, ezabatu egiten nuen eta akabo.

(Neska taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Nerabeek egiten dutenaren aurka, ez dute onartzen adiskide kopuruak izen onarekin zerikusia duela pentsatzen dutenik eta ez diote haiek besteko garrantzia ematen kopuru horri. Izan ere, batzuek diotenez, lagunen zerrenda ezkutuan gordetzen dute Facebooken.

Neska: Inork ikusi ahal ez izateko moduan daukat nik jarrita, batez ere kuxkuxero asko dagoelako eta agian begira ibil daitezke ea zure mutil-lagun ohia bertan daukazu eta gisa horretako gauzak. Bestalde, nahiago dut jendeak nire bitartez beste profil batzuk eskura ez ditzan, nahiz eta hauek zabalik egon. Jende guztiak hori egingo balu, zailagoa izango litzateke jendea kuxkuxean aritzea, lagun komunak bakarrik egongo lirarteke agerian.

(Neska taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

4.2.2. Adierazpenak sare sozialetan

Parte-hartzaile gehienek esanetan ez dute haien egoera oso maiz eguneratzen, nahiz eta onartzen duten Facebook erabiltzen dutela eduki anitzak (argazkiak, berriak, bideoak, loturak) partekatzeke, baina ez bakarrik egoerak eguneratu eta norberari buruzko iruzkinak egiteko.

D: Egoera eguneratzen duzue? (...)

Neska: Nik batzuetan zerbait jartzen dut, baina laburra, adibidez non nagoen.

Neska: Nik lehen askoz ere gehiago jartzen nuen, baina uste dut Facebookek bide hau ireki duela, hau da, lehen jendeak askoz ere gehiago idazten zuen, baina orain gehienbat berriak eta argazkiak agertzen dira.

Neska: Bai, gauza berbera agertzen da ehun aldiz!

Neska: Badago jendea batez ere berriak eskegitzen dituen, egunkarietan agertzen ez direnetakoak, bilatu eta eskegi egiten dituzte, baina ez hona edo hara doazela esateko.

Neska: Egia esan gauza mordera dago, nik egunkaria irakurtzen dudan moduan irakurtzen dut, horrela, konturatu barik, berriak jakiten ditut.

(Neska taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Sare sozialetako egoeren eguneratzea erabiliz beste pertsona batzuei zeharkako mezuak bidaltzearen inguruan, neska batzuek onartzen dute egiten dutela, aipuen edo abestien bidez.

Neska: Nik mezu asko bidali izan ditut abestien bitartez. Gustuko nuen jendeari, baina horman iragartzen nuen, gustuko nuelako eta partekatzea merezi zuelako. Askotan esaldiak eta aipuak ere jarri izan ditut.

Neska: Facebooken egiten dudan guztiak nire egoerarekin eta nire bizitzarekin zerikusia du eta gehienetan zerbait iragartzen dudanean, nire bizitzarekin lotura duelako da.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Talde guztiak bat datoz esatean aurrez aurre adierazten zailak diren hainbat gauza esatea errazten dutela sare sozialek.

Mutila: Bai, irakurtzen ditut nesken gauzak, seguru asko kalean esaten ez dituztenak.

Mutila: Jende askok egiten duela uste dut, sareak erabiltzen dituzte nola sentitzen diren adierazteko, edo hain zuzen ere, uste dut sarritan haien bikotekideentzako mezu ezkutuak direla, hark gaizki dagoela jakin dezan, edo oso maite duela edo jeloskor jar dadin ere bai.

(Mutilen taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

Norbere kontuen edo banakako bizitzaren agerrera mailari gagozkiola, hainbat neskak onartzen du bere sentipen, ezintasun eta emozioak agertzen dituela. Mutilek, ostera, haien egoera sarritan eguneratzen ez dutela eta egiten dutenari buruzko gauza asko adierazten ez dutela diote.

Neska: Nire 36 urteko ahizpa egun osoan ari da horrelako gauzak egiten eta beti dago egoera dramatikoetan murgilduta eta azaldu egiten du.

Neska: Gure lagun bat ere beti ari da horrelako argazkiak igotzen jendeak galde diezaion ea zer moduz dagoen edo ea zer gertatzen zaion.

Neska: Maitasuna nahi eta behar dutelako, horregatik da.

(Neska taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Mutila: A! Ez! Inoiz ez dut ezer jartzen.

Mutila: Nik egoera aldatu ohi dut zenbaitetan, baina ez egunero.

Mutila: Ez dut ezer jartzen, nire ustez jendeak ez du neurririk horretan. Niri bost axola afaltzen ala telebista ikusten ari den! Intimitaterik bat ere ez!

D: Sareak erabiltzen al dituzue zuen sentimenduak, pentsamenduak edo egoera emozionala adierazteko?

Mutila: Ez, inoiz ez.

Mutila: Ez, neure gauzak adierazteko nahiago dut konfiantzazko jendearekin aurrez aurre egitea.

(Mutilen taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

4.2.3. Argazkiak

Adin tarte honetako taldeetako parte hartzaileek diotenez gehien partekatzen dituzten argazkiak taldean egindakoak dira, jardueretakoak, bidaietakoak, otorduetakoak, gertaera berezietakoak, paisaienak edota jaietakoak. Diotenez ez dizkiote argazkiak inori eskaintzen eta ez dituzte autoerretratuak igotzen, nahiz eta onartzen duten kontaktuen artean horrelakoak ikusi izana.

D: Zein eratako argazkiak igotzen dituzue?

Neska: Ondo ematen dugun argazkiak dira argitaratzen ditugunak.

Neska: Tira, taldekoak ere bai. Nik katuaren argazki asko igotzen ditut.

Neska: Nik ez dut argazki asko igotzen.

D: Badago hemen autoerretraturik igotzen duenik?

Neska: Bai, profilaren argazkietarako. Bestalde, duela urte batzuk argazkigintza ikasten ari nintzenean, nonbaitera joaten nintzeneko argazkiak igo ohi nituen. Argazkiren bat igotzen badut, oporretara joan naizelako edo egoera berezia delako izaten da. Nik gutxitxo igotzen ditut; nire lagunek gehiago.

Neska: Argazki bereziak dira igotzen ditugunak.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Badirudi tentuz aukeratzen dituztela igotzen dituzten argazkiak, eta ez dutela modu ari-nean egiten. Honekin batera, onartzen dute, haien kanpo-irudia hobetze aldera, jai giroko argazkiak ezabatu ere ezabatu dituztela.

Neska: Nik lehen erakusten nituen, baina orain ez, ez horixe! Oso errepikakorrak dira! Eta penagarriak ia beti!

(Neska-taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Neska: Hobe hori ez egitea. Garai batean parrandako argazki asko igotzen genituen, baina begiratzen hasten zaren egunean, denak ezabatzeko ordua iritsi dela pentsatzen duzu. Gaur egun jendeak ez ditu horrelako argazkiak igotzen.

Mutila: Argazki bat igotzen dudan bakoitzean gogoan dut argazki horrekin etorkizunean zer gerta bide den.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Mutilek, oro har, argazkiak aldi gutxiagotan igotzen dituztela diote eta hauek ez direla hain pertsonalak.

D: Argazkiak igo ohi dituzue? Nolako argazkiak? Zerenak?

Mutila: Kirolenak, batez ere mendikoak, egiten ditugun irteeretakoak.

Mutila: Nik egiten ditudan jarduera eta bidaien argazkiak igotzen ditut. Gustatzen zaizkidan argazkiak ere partekatzen ditut, gaur egun Facebooken bidez jakin ditzakezu munduan gertatzen ari diren gauza guztiak.

Mutila: Nik apenas igotzen dudan nire argazkirik eta ernegatu egiten naiz parrandako eta gisako argazkietan etiketatzen nautenean, nire lagunei esana diet ni agertzen naizen argazkiak ez igotzeko eta are gutxiago parrandakoak. Hau da sare sozialetatik gustuko ez dudan gauzetako bat, jendeak argazki eta iruzkinean etiketatzen zaituela zure baimenik gabe.

(Mutil-taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

Eduki sentsualeko argazkiei dagokienean, egiten dituztela onartu ez arren, ados egon ohi dira neskek maizago ateratzen dituztela eta Tuenti sare sozilean agertzen direla gehien.

D: Argazki sexiak aipatu ditugunez, bidenabar, nesken ala mutilen argazki sexi gehiago dagoela uste duzue?

Neska: Neskenak, uste dut.

Mutila: Ispilu aurrean ateratako mutilen argazkiak ere badaude. Baina, ez dakit, neskak pinpirinagoak dira, baliteke gehiago igotzea. Adinak ere zeresana du, nik lehen horrelako argazki gehiago nituela uste dut.

Mutila: Nik ez ditut horrelakoak igotzen eta ikusi ere gutxitan ikusi ditut.

Mutila: Norberaren estiloaren araberakoa ere bada. Eta Tuentin gehiago ikusten ziren orain Facebooken ikusten direna baino.

Neska: Nik zorionez ez daukat horrelako argazkiak igotzen dituen jenderik.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

4.3. SARE SOZIALEN ERABILERA ETA EDUKI BEREIZTUAK

Adin tarte honetan aipatutako sare sozialen erabilera nagusiak jendarteko eta harremanetarako komunikazioa eta erabilera informatiboa dira. Elkarrekin komunikatzea, harremanei eustea, ikastea, gauza berriak ezagutzea eta informazioa jasotzea elkarri lotuta datoz Facebooken erabilera komunikatiboan; komunikaziorako lanabes edo bide honi nerabezaroan baino erabilera anitzagoa emanez.

Mutila: Niri gauzak argitaratzea gustatzen zait, bai. Gustuko dudan berri bat badago, partekatu egiten dut eta horrela jakitun den jende gehiago egongo da. Argazkiak baino berriak iragartzea gustatzen zait. Ni txunditzen nautenak eta beste hamarri heltzea nahi dut, eta gero beste hamaseiri eta horrela. Esate baterako, politikari batek bizi guztirako 15.000 euroko pentsioa du. Niretzat interesgarria da, baliteke norbait oraindik jakitun ez izatea eta jarri egiten dut. (Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Sareak kontaktu edo maitale gisako lagun berriak ezagutzeko erabiltzen ez dituztela diote, nahiz eta neskek, bereziki, onartzen duten ezezagunen eskariak jaso izana.

D: Eta jende berria ezagutzeko sare sozialak erabiltzen dituzue?

Neska: Ez.

Neska: Nik Twitterren onartzen dut jendea. Argitaratzen dutenagatik edo dituzten zaletasunegatik interesatzen zaizkidan lagunak onartzen ditut... pertsona partikularrak izaten dira. Batez ere informazioagatik dudan interesarengatik egiten dut, baina ez fitxaketa-merkatu bezala. Lehen Tuentira adiskidetasun eskakizun asko heltzen ziren, batez ere igande goizetan.

D: Besteok ere jaso dituzue horrelako gonbiteak?

Neska: Bai.

Neska: Bai.

Mutila: Tuentin oso sarritan, Facebooken ez. Facebooken baduzu aukera ikusteko zure lagunak lagunak ote diren. Horrela jakin dezakezu ezagutzen dituzun ala ez.

D: Guztiok?

Neska: Bai.

Neska: Nire peskizan ibili izan dira. Parrandan irten ginen egun baten, lagun baten mutil-lagun ezagun bat nire bila aritu zen Facebooken eta nirekin hitz egitera etorri ordez, etxera heldu orduko eskakizuna bidali zidan. Gora bizitza birtuala!

D: Daukagun mutil bakarrarentzat galdera: inoiz gertatu al zaizu ezezagunek eskakizunak bidaltzea?

Mutila: Ez, inoiz ez.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Hala ere, eta eskaerak jaso arren, kontaktuok ez onartzeko inolako zailtasunik ez dutela diote.

Neska: Nik batzuei susmo txarra hartu izan diet eta inoiz ez ditut onartu. Ez bazaitut ezagutzen, berdin dit nire lagunaren laguna bazara ere, ez bazaitut ezagutzen, ez zaitut onartzen.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Nerabeen taldeetan, mutilek sare sozialak neskak limurtzeko erabiltzen zituztela onartzen bazuten ere, gazteen taldeotan parte hartu duten mutil gehienak ez zeuden hau onartzeko prest, nahiz eta onartzen zuten neskek mutilen eskaera gehiago jasotzen dituztela sareen bitartez.

Mutila: Nik Facebookeko txata erabiltzen dut lagunekin geratzeko, ez daukadalako Whatsapp, baita jolasteko, berriak jakiteko, kuxkuxean jarduteko eta jakina, neska politikak ikusteko, ja, ja. Bidenabar beraien adina jakiten dut.

(Mutil taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

Azpimarragarria da, azkenik, zenbaitek aipatu dutela Facebook sare sozialaren erabilerak jasan duen aldaketa, lehen lagunekin hitzordua jartzeko hau erabiltzen baitzuten; gaur egun, ordea, Whatsapp moduko patrikakoetarako bat-bateko mezularitza aplikazioen erabilera da nagusi.

Neska: Nire iritziz Facebookek asko galdu du Whatsapp dagoenetik. Nire mutil-lagunak ez du Whatsapp eta inkomunikatuta dago. Esaterako, lagunarteko

deialdietarako edo ospakizunak antolatzeke nire bitartez izan behar du. Jende guztiak dauka Whatsapp eta dohainekoa da, gainera kalean zaudela ere erabil dezakezu, besteei esateko «zerbait hartzera jaitsi gara».

Neska: Ni, adibidez, orain metroan lanean ari naiz eta nire lankidearekin Whatsapp bidez komunikatzen naiz: «Sarrikon nago! Ni Abandon!».

(Neska-taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Giza-sareen erabilerari dagokionean, adin tarte honetan dagoen genero desberdintasunaren adibide da neskek mutilek baino gehiago darabiltzatela eta partekatutako eduki batzuk desberdinak direla.

Horrela bada, bi sexuek diote musika, kultur-gaiak, hedabideak eta argibideak partekatzen dituztela. Horrez gain, neskek moda eta heziketa omen dituzte mintzagai eta laguneren artean ospakizunak antolatzen ei dituzte; mutilek, batez ere kirolak eta informatikari buruzko edukiak partekatzen dituzte.

Bikote-harremanak, argazkiak eta maitasunezko mezuak argitaratzearen inguruan, gazteak nerabeak baino zuhurrago ageri dira, baina oro har, neskek zein mutilek onartzen dute haien kontaktuek harremanak publiko egiten dituztela.

D: Ohikoa al da bikotekidearekin ateratako argazkiak igotzea?

Neska: Bikotekidearekin ateratako argazki asko igotzen dituzten ezagunak ditut Facebooken.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Neska: Bat-batean neska ezagun bat mutil batekin ikusten duzu eta kuxkuean hasten zara: «Begiratu! Mutil-laguna aurkitu du!».

(Nesken taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Neska: Nik igo izan ditut, baina geroz eta gutxiago egiten dut.

Neska: Nik behin edo behin igo izan ditut, baina ez laztanka edo gisako jerreretan.

Neska: Gauza bat da zure mutilarekin leku jakin batean ateratako argazkian agertzea eta beste bat laztanka eta abar agertzea.

(Nesken taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Mutila: Nik jarri izan ditut noizbait nire neska-lagunarekin nagoen argazkiak, oporretakoak eta. Baina ez diot bikotekideari argazkirik eskaini, oso kurtsia iruditzen zait hori.

(Mutil taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

Neskek zein mutilek bikotekidea adiskideen zerrendan izan ohi dute, nahiz eta esan ez dutela gogoko harremana sailkatzea eta Facebookeko «egoera sentimental»ean kokatzea. (Hau norberaren profilean datorren atal bat da eta bertan bikotekidearen profila txerta daiteke, horrela bien profilak elkarrekin lotuta agertuko dira).

Mutila: Neska-laguna nire adiskideen artean zerrendatuta daukat, baina ez dut argitaratu harekin harreman berezia dudarik.

Mutila: Nik gauza bera. Gainera, nahiko gogorrak egiten zaizkit Facebooken ikusi ditudan aukerak: ezkongabea, bikoteduna, zaila da... lotua, ezkondua... sailkapen moduko bat da. Nahiz eta egia den kuxkuxean ibiltzeko aukera ematen duela, nork daukan bikotekide berria, nor dagoen ezkongabe, nor norekin dabilen...

(Mutil-taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

Hala ere, eta haiek egiten dutela adierazi ez arren, kontaktuen artean ikusten duten zer-bait bada.

D: Ikusi al duzue norbait harreman bat hasiberritan Facebooken argitaratu duenik?

Neska: Eta handik denboraldi batera... harremana eten egin da. (Barre algarak).

Neska: Eta onena, badagoela jendea etengabe harremana eteten eta berriz ere berregiten... eta etengabe adierazten dute.

(Neska-taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Bikotekide ohien kontaktuak Facebooken mantentzearen inguruan, jarrera kontrajarriak ageri dira. Batzuek diotenez, nahiago dute tartea gordetzea (baita sare sozialean ere), aldi batez behinik behin; beste batzuk, ordea, bikotekide ohiak sarean izateak arazoak ekarri dizkietela diote.

Neska: Nik duela lau urte eten nuen nire mutil-lagun ohiarekiko harremana. Facebookeko kontua berarekin moztu aurre-aurretxoan sortu nuen eta berak ez zeukan eta handik gutxira sortu zuen. Esan nion hobe zela elkarren lagun-taldeetan ez bageunden errazago ahaztu ahal izateko, azken finean elkarren kontaktu izango ginelako eta hobe zelako urrun egotea. Berak ulertu zuen eta duela urtebete inguru jarri ninduen bere lagunartean eta hor dago eta oso ondo. Ez diogu elkarri jaramon handirik egiten, baina noizbehinka berba egiten dugu. Apurtu berri nahiago dut laguneren zerrendan ez izatea.

Neska: Nik, esaterako, ez daukat, baina lagun komunak ditugu eta, jakina, nik zerbait eskegitzen badut eta bion laguneren batekin partekatzen badut, azkenean mutil-ohiak niri min eman diezadakeen iruzkinen bat egin dezake... Hortaz, hori kontrolatzea oso zaila da.

Neska: Nik ere arrazoi horrexegatik hasieran ez neukan nire lagun artean, edo min eman diezadaketan argazkiak ez ikustearren.

Neska: Niri egin didate hori. Badut mutil-lagun ohi bat nire aurkako esaldi iraingarriak jartzen zituena bere horman, eta nire lagunartean zegoenez, ikusi egiten nituen. Ez zuen nire izena idazten, baina nik banekien niri zuzenduak zirela.

(Neska-taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Taldeetako parte-hartzaileen mintzaldian usua den harreman afektiboen eta sare sozialen gaian, etengabe ageri da Whatsapp hitza. Haien ustez, ez dago zalantzarik Whatsapp aplikazioa dela, sare sozialen aldean, bikotekideen artean gatazka gehien sortzen duena, kontrola eta jeloskortasuna sustatuz.

Neska: Whattsappen kontrol handia dago. «Azkenengoz konektatua» aplikazio horrekin, jaso ote duen, ez ote duen jaso...

Mutila: Baina hori ere ez da guztiz fidagarria.

Neska: Ez. Baina nire ustez gaizkiulertu asko sortarazten ditu, batez ere bikotekideen artean. Nahi beste idazten duzu eta gero gaizki ulertzen da.

Neska: Baina hori gaizki idazten delako gertatzen da, nik tildeak eta guzti jartzen ditut.

Neska: Ez, baina ez dihardut ortografiaz, tonuaz baizik. Zuk ez daukazu pertsona aurrean, eta gaizki uler daiteke hark esandakoa. Pertsonaren arabera ere izaten da, lagunak, familia edo bikotekidea izan. Ezberdina da hizketan ari zaren pertsonaren arabera, baina nik ustekabeen eta esaldi bat edo bestegatik sekula-

ko ernegualdiak izan ditut. Izan ere, garai baten, nire bikotekidea blokeatu nuen, etengabe errietan ari ginelako. Telefono-deien bidez komunikatzea erabaki genuen eta kitto!

Mutila: Guk ere izan dugu esperientzia txarren bat edo beste, nahiz eta ez garen heldu elkar blokeatzera. Adibidez, «Zer moduz?», «Ondo». «Ondo» bakarrik. Gakoa zera da, aurrez aurre esaten duzunean desberdina dela, ez duzu berdin transmititzen. (Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Suminduta ageri dira aplikazio honen erabileran espero den bat-batekotasunagatik eta mezua-berehalako erantzuna jokoera horren orokortzeak eta normalizazioak zailtasunak dakartzala diote, ez bikote-harremanetan bakarrik, baizik eta lagun arteko harremanetan ere bai.

D: Sentitzen al duzue Whatsappekin aldi oro konektatuta egon beharra, instantean erantzuten ez baduzue beste pertsonak gaizki hartzen duelako?

Neska: Bai.

Neska: Bai.

Neska: Bai. Batez ere irakurrita dagoela agertzen denean.

Neska: Nik arazo larria dut lagun batekin horren kontura. Berak badaki irakurri egin dudala, baina oraindik ez diot erantzun. Badaki egun guztian daukadala sakelakoa gainean eta konektatuta egoten naizela eta atzotik ez diot erantzun. Hona etorri aurretik zera idatzi dit: «Nahiko da, beti egiten didazu gauza bera, ez didazu erantzuten eta badakit irakurri duzula». Gertatzen dena da momentuan erantzuten ez baduzu, ahaztu egiten zaizula.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Kontrol erakustaldien aurrean, neska eta mutil gehienek sareko pasahitza norberarena dela eta norberaren bizitzak errespetua merezi duela ulertzen dutela diote. Baina, nesken taldeko batek onartu du bikotekideak bere pasahitzak dituela, eta jeloskortasuna sare sozialetan maiz ageri den jokabidea dela.

Neska: Mutil-lagunak (nire pasahitz) guztiak dauzka, ez daukat zer ezkutatu.

(Nesken taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Neska: Niri gertatu izan zait hura jeloskor jartzea ni argazkietan beste mutil batzuekin agertzeagatik eta telefonoz deitu izan dit errieta egiteko.

(Neska-taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

D: Zuen ustez sare-sozialek bikotekideen arteko jeloskortasuna sustatzen al dute?

Mutila: Bai, niri gertatu izan zait. Iruzkin edo argazkiren bat oker uler dezakezu. Lehen zera esan zezaketen: «Ikusten ez duenak, sufrimendurik ez», baina hori orain ez da gertatzen. Eta egia esan oso gaizki sentitzen zara, tentel bat bezala, gero konturatzen zarelako ez zeukala zerikusirik zu pentsatzen ari zinenarekin.

Mutila: Nik ere horixe uste dut, jeloskortasun handiak sortzen direla sareen erruz, eta beste gauza bat ere uste dut, askok, batez ere gazteenek, bikotekidea jeloskor jartzeko erabiltzen dituztela, lehia antzeko batean.

Mutila: Ni ere ados nago, nahiz eta uste dudan hori guztia betidanik egon dela, baina orain ikusgarriagoa da, jende guztiak ikus dezake.

(Mutilen taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

4.4. ERASOAK GIZARTE-SAREETAN

Sareetan nabaritzen dituzten eraso anitzez mintzatzean, neska-mutilen aurkako irainak eta hauek publikoki hedatzeak sortzen duen mina aipatzen dute. Neskei dagokienean, irain horiek bereziki haien argazkietan iragartzen dira.

Mutila: Nik ez dut inoiz egin, baina egia da jendeak sareetan nahi duena jartzen duela eta neskaren batek argazki sexiren bat igotzen badu, posatuz adibidez, egiten diren iruzkinak nahiko iraingarriak izaten direla. Eta seguru asko denok barre egiten dugu edo ez diogu inolako garrantzirik ematen.

(Mutilen taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

Neskek eta mutilak bat datoz sare sozialetan ohikoagoa dela neskek jasotzea ezezagunen kontaktu-gonbidapenak edo baita jazarpena jasatea ere.

Neska: 13 urteko neskak, 18koaren itxura izanagatik, ume izaten jarraitzen du. Jazarpen eta pederastia arrisku handiagoa dago. Lehen baliteke txat horren bidez besteak limurtzen saiatzea, baina gure adin bereko jendearentzat zen dena, orain dena maltzurragoa da.

Neska: Orain jendea ezagutzeko sare mordo dago.
(Neska-taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Neska: Niri gertatu zait mezuen bitartez zinemara joateko gonbita jasotzea eta hori zer dela eta galdetzen diozu zeure buruari.

Neska: Niri «kaixo, polit hori», ez hain modu zuzenean, baina lelokerietan ibiltzea bai, gertatu zait.

Neska: Niri egin didate eta ezagutzen ez nituen pertsonak eta Whatsappen bidez. Nola dauka nire zenbakia? Eta lana eskaini zidan eta ezetz esan nion. Erantzunik eman gabe moztu nuen, patrikakoari jaramon egin barik... gutxi gorabehera nor zen jakin nuen nire lagun batek ezagutzen duelako.

(Nesken taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Mutila: Uste dut horrelakoak sarritan gertatzen zaizkiela neskei, lagun bati entzun izan diodanez. Horretan mutilak ausartagoak izan ohi dira eta gonbit gehiago luzatzen dituzte.

(Mutil-taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

Talde eztabaida hauetako jardunean jabetu dira aurretik sumatzen ez zuten arazo batez, hain zuzen ere, sareak nesken sexu-edukiak partekatzeke edota neskei sexu-xantaia egiteko erabil daitezkeela.

Neska: Bideo bat ibili zen, San Inazioko metroan zegoen neska batek, bat-batean elastikoa jaitsi eta bere titien bideo bat grabatu zuena. Hori duela hiru urte izanez gero, poltsikoan kamara bat eraman ezean, patrikakoarekin ezin izango zenuen grabatu. Orain bideo hori jende mordoak ikusi du.

Neska: Niri hori lagun desberdinen bidez eta leku batetik baino gehiagotik heldu zait.

Neska: Zabalkundea oso txarra edo oso ona izan daiteke.

Neska: Duela urte asko ere gertatu zen eta ez zen Espainian izan eta Hotmail bidez heldu zen. Madrilen zegoen neska bat zen, mutil-lagun ohiak argazki aski

konprometigarriak bidali ei zizkion eta gaizki bukatu ei zuten eta mutilak iragarri egin zituen eta azkenik, Madrileko argazki horiek honaino heldu ziren. Deustuko neska batzuei ere gertatu zitzaien.

Neska: Gaur egun dena azkarragoa da, onerako eta txarrerako.
(Neska-taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Mutila: Telebistan ikusi izan dut behin edo behin gertatu dela, gehien bat neskei, norbait besteren baten nortasuna erabiliz saiatu dela neska baten lagun egiten, gero neskaren beraren argazkiekin xantaia egiten ahalegintzeko. Baina ez dut horrelako kasurik ezagutzen.

(Mutil-taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

Ildo honetatik, nerabeek ez bezala, neska gazteek beste sexu-indarkeria mota bat nabaritzen dute: adierazpenezko indarkeria edo indarkeria sinbolikoa, Interneten oro har, eta ez bakarrik sare sozialetan, agertzen diren ageriko sexu eta emakumeen gorputzei lotutakoa, alegia.

Neska: Baina hori ez da sare sozialetan bakarrik gertatzen. Zerbaiten bila zabiltzanean ere ager dakizkizuke «Orange» edo «Miazka nazazu» bezalako mezuak, edo orrialde baten egon eta Facebookeko leihatilaren tankerako bat agertzen zaizu. Nongoak diren esaten duten nesken mezuak agertzen dira: «Portugaletakoa naiz» edo «Algortakoa» naiz.

Neska: Niri hori gertatzen zaidanean, beti begiratzen dut ea Facebook irekita dudan, guztiz benetakoa dirudielako. Ez ditut gauza horiek atsegin. Edo futbolari buruzko orrietan, nagusiki gizonen zuzendutakoetan, oso matxistak diren gauzak ikus ditzakezu. Pornoak emakumeentzat ere izan daiteke, baina ez hain iraingarria. Nire Facebooken ez dut ikusi, baina inork jarriko balu, ez litzateke nire Facebooken egongo. Gaur egun ezinezkoa da orrialde bat iragarkirik gabe ikustea eta orrialdean zehar mugitzen bazara ere, iragarkia oraindik erdi-erdian agertzen zaizu.

(Neska-taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

4.5. MUNDU BIRTUALAREN ETA BENETAKOAREN ARTEKO ALDEA

Adin tarte honetako parte hartzaileek baieztatzen dute sare sozialek erraztu egiten dutela aurrez aurre esango ez lirakeen gauzak adieraztea, eta batzuetan kontraesanak daudela pertsona baten jokabide birtualaren eta benetakoaren artean.

Neska: Niri gertatzen zait eta lagun min batekin, gainera. Nire bikotekideak ezagutu zuenean, Facebooken bidez, zera esan zidan: «Neska hau oso dinamikoa da, bizitza sozial zabala du, gauza asko egiten ditu eta oso zoriontsua da», baina ezagutzen duzunean, ez da horrelakoa. Asteburu baten hor zehar ibili ginen eta gero benetan gertatu ez ziren gauzak argitaratu zituen. Eta oraindik ere hori egiten du, 35 urte ditu eta badirudi bere errealitatea modu batean bizi eta beste modu batez islatzen duela, baina itxura ona ematen du.

D: Eta desengainurik inorekin?

Neska: Nik ezagutzen dut jendea egurra hartu duena edo ezustekoak jaso dituenak. Baina niri ez zait gertatu. Eta erregu dut horrelakorik ez gertatzea.
(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Mutila: Uste dut sare sozialek sarri sortarazten dituztela harreman nahiko faltsu edo irrealak eta txarrena da jende askok benetan sinesten dituela.
(Mutilen taldea. 25-29 urte. Lekeitio. Gaztelaniaz)

Neska: Niri behin gertatu zitzaidan, Erromoko bat zen, begiz ezagutzen nuena, Facebooken ni limurtzen saiatu eta gero, kalean agurtu ere egin ez ninduenak.

Neska: Zer den lotsatia izatea!

Neska: Lotsatia? Parrandan aldamenean izan eta aurpegira begiratu ere ez egitea? (...) Zera jartzen zidan: «Zer moduz zaude, polit hori? Zein polita zaren». Eta gero, alboan izan eta ezer ez. Ez dut ezer ere ulertzen.

(Neska-taldea. 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

4.6. GIZARTE-SAREEN GARRANTZIA

Bukatzeko, haientzat sare sozialak zer diren galdetzean, orokorrean zera erantzuten dute, denbora-pasa bat direla, hedapenerako, heziketarako eta ezagutzarako tresnak. Komunikatzeko, jostatzeko eta argibideak aurkitzeko tresna ere badira. Batzuek maila ertaineko garrantzia ematen diete, baina onartzen dute ohitu egin direla eta haiek gabe egotea arraroa egingo litzaiekeela. Denbora alferrik galarazten dutela uste duenik ere badago.

Neska: Nire ustez hein batean denbora galtzea da, baina atsedean hartzeko ere balio dizu, beste zerbait egiten ari naizen artean. Horrelakoetan bost minuturako sartzen naiz Facebooken, azkenean ordu bete izaten dena, baina bai, denbora alferrik galtzea dela deritzot.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Nerabeen taldeekin alderatuz, ez dituzte sareak hain garrantzitsutzat jotzen harreman pertsonaletarako.

Neska: Nire ustez, gizarte mailan ere ispilu bat da, hau da, errealitatea islatzen du, baina ez da errealitatea. Inoiz ez nintzateke lagunekin Facebook bidez hitz egiten etxean geratuko, beraiekin garagardo batzuk hartzera eta berba egitera irten barik, Someran pintxo batzuk janez bat.

(Neska-mutil taldea. 25-29 urte. Deustu. Gaztelaniaz)

Gehienek sare sozialak haien bizitza pertsonalerako eta zenbaitek bere lana ezagutzera emateko erabiltzen badituzte ere, erabilera berri bat ere abian jarri da: gizarte mailako ekimena eta ekimen feminista bideratzekoa. Burututako eztabaidetan gazteen ziber-ekimena ez zen hizketagai esanguratsua izan; izan ere, gaiari egin zitzaion aipamena bera talde-eztabaidatik kanpo egin zen, dinamizatzaileari egindako banakako iruzkin baten bidez.

Neska: Nik, egia esan, ez dut gauza asko esan taldean eta ez dut parte hartu ahalko nukeen beste, uste dudalako nik sare sozialekin dudana esperientzia bes-

teek aipatutakotik desberdina dela, nolabait berezia da, hainbeste alorretan erabiltzen ditut... Ez da arlo pertsonalean erabiltzen ez ditudala, baina batez ere maila profesionalean eta ekimenerako erabiltzen ditut... Niretzat sareetan egotea oinarritzkoa da, nire lanabesak dira, mobilizatorako tresna eta egiten dudan guztia jakinarazteko bide. Eta horrek etengabe konektatuta egotera narama, baina batik bat egiten dudan guztia hedatzen laguntzen didatelako sareek; he-
dabide oso indartsuak dira.


(Nesken taldea 25-29 urte. Getxo. Gaztelaniaz)

Giza sareen erabiltzaile amorratua den parte hartzaile honen iritziz, sareen garrantzia eztabaida ezina da. Komunikatzeko modu berria dira; sare zabal batekin kontaktuan egoteko bidea, zeinak iritzi sortzaile, letra larriz idatzitako erabiltzaile eta ondorioz, sexismo birtuala zailantzan jartzen duen aldaketa-agente bihurtzen duen bera.

KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

**5.
Neskak eta mutilak,
nerabezaroa eta
gaztaroa: gizarte-sareen
erabilera ezberdinak**



5

Neskak eta mutilak, nerabezaroa eta gaztaroa: gizarte-sareen erabilera ezberdinak

5.1. GIZARTE-SAREAK: GIZARTEAREN ERAKUSLEIHOA...

Giza-sareak informatzaileen bizitzan barneratzeak ekarri duen aldaketa nabarmenetako bat izan da hauek bizitza pribatuari eta are intimoari ematen dioten ikusgarritasuna. Honela, gertaera publiko eta pribatuen arteko aldeak artifiziala dirudi. Hala ere, sareetan adierazten diren bizitza pribatuko kontuak oso anitzak dira eta ez dute inolako mailaketarik jarraitzen; ikerketa honetan parte hartutako nerabeak bat datoz esatean sareetan adierazten dutena garrantzi txikikoa dela, talde-entretanimendurako erabilia.

Horrela bada, sareetan protagonismoa partekatzen dute unean dastatzen ari den janariak, hedabide tradizionaletan agertzen ez diren gertakari politiko batzuei buruzko gogoeta pertsonalek, lagun-taldeak egindako azken irteeraren argazkiek, bikotekide jakin batzuen arteko apurketa edo berradiskidetzeak eta protesta edo mobilizazio-deialdi bati erantzuteko salaketa sozialak.

Lehen normalki lagun minekin soilik partekatzen ziren pentsamendu eta bizipenak, orain lagun horien «arbele»an edo «horma»n iragartzen dira, biren arteko komunikazioa ezagutza publiko edo giza-komunikazio bilakatuz; behin sarean agertuz gero, protagonisten kontrole-tik ihes egiten duen komunikazioa, bestalde.

Bizitzaren barne-dimentsioak ere astindua jaso du giza-sareen existentzia dela eta. Lehen isilka eta buruz buru, edo baita arte-adierazpenerako bererako ere, erabiltzen zen materiala orain exhibizio publikorako objektu bihurtu da eta beraz, giza-voyeurismoa abiarazteko elementu. Gauza bera esan daiteke bikotekideen arteko komunikazioaz ere, bikotekideek haien hormetarako sarbidea dutenekin partekatzen baitituzte harremanaren gora-beherak, sentimendu-adierazpenak eta are zehaztasun intimoak ere, izatez bikotikideei beraiei bakarrik jakitea dagozkienak.

Neskek maizago egiten duten maitasun-harremanen exhibizio publiko hau, lortutakoa harrotasunez adierazten duten mezuen bidez egiten da: «Hau da nire mutil-laguna, hau da maitate dudan mutila, hau da gure laztana, hau da gure maitasuna, hau da gure maitatzeko modua»... Erakustaldi honek izan ditzakeen ondorioak ez dira alaitasun uneetan —«sentitzen dudana, lortu

dudana» munduari erakusteko momentuan— nabaritzen, baina zenbaitetan bai, ordea, apurketaren uean, etsipena eta beste guztien kritika nagusitzen direnean, edota intimitatea babestu edo zerbait isilpean gorde nahi denean eta begirada luzeegietatik babestu ezin denean.

Eragin irudikaezineko erakus-leihoak izanik, giza-sareek horretarako borondatea duenari bere bizitza erakustea ahalbidetzen diote, norbanakoak iragazi nahi duena gora-behera; iragazpena eskarmentuaren arabera izaten da, erakustaldi honen ondorio ez beti baikorren arabera, hurkoen arteko gizartekotzearen arabera, hau da, giza-arauen arabera baino banakako eta taldeko arauen neurrikoa. Dagoeneko ez dago kanpotik ezarritako Anaia Nagusiaren beharrik; sare sozialek jarreraren, jokabideen eta are barneko pentsamendu eta sentimenduen fiskalizazioa normalizatu dute eta ispilu handi bilakatu direnez, harreman eta kontrol-modu berririk sortarazi dituzte.

Gazteen egunerokotasunaren adierazpen eta ispilu lan horretan, sare sozialek generorolak birsortzeko era zehatzak ezartzen dituzte, zenbait irudi, mezu eta eduki erreferentzia-eredu bilakatuz. Erabiltzaile batengandik beste batengana igarotzen diren heinean birsortzen diren edukiek eta konektatutako lagunen artean behin eta berriz hedatzen diren tendentzia edo modek, berdinen arteko alderaketaren ondorioz, estereotipatutako jokabide birtualak birsortzea ahalbidetzen dute. Era horretan, neska edo mutil «normala» izatearen giza-definizioa sare sozialean behin eta berriro adierazitako edukien bitartez egindakoa da.

Beraz, zenbait jokabide «femeninotzat» hartzearen ustea indartu egiten da eta jokabideok beste neska batzuentzat erreferentzia bihurtzen dira; hala nola argazkien edota autoertratuen bidez egindako *photoshopeatutako* irudia erakustea, sentimenduen adierazpena eta harreman birtualen eraikuntza. Gazteenek, gainera, kritikarako gaitasun gutxiago dutelako, errazago barnera ditzakete. «Normaltasun» honetatik irtetea eta egokitzea jotako jokabide orokortuetatik aldentzea ariketa zaila izan daiteke, batik bat nerabezaroa den identitate-krisi garaian.

Aldi berean, mutilek sarean egiten dituzten adierazpenak onartutako maskulinitateari egotzitako jokabidearen eta erreferentziaren eredu dira: agerian geratzen ez dena, sentimendurik adierazten ez duena, sare sozialek ligatzeko kontaktu-sare eta aisialdirako eta entretenimendurako eremu gisa erabiltzen dituenak.

Giza-sareak batez ere ikus-entzunezko hedabide direnez gero, generorolak eraikitzeak duten bide bat irudiarena da. Neskek, batik bat, haien irudiaren eta itxura fisikoaren kritikari aurre egin behar diote. Argazki kopuru itzela medio exhibitzen direlarik —hazietako asko presta-

tu gabeak, baina beste asko prestatuak eta zenbaitetan naturaltasunik gabeak—, haien helburua ez da soilik beste pertsona batzuek ikustea, baizik eta nahita edo nahi gabe, besteen balioespenaren arriskuari aurre egin behar diote, aldi batzuetan onartzeko eta besteetan gaitzesteko izango den balioespena.

Neska nerabeek igotzen dituzten argazki ugarietan sarri «Gustuko zaitut?» galderaren erantzunaren bila dabiltzala dirudi eta batzuetan nahi ez dituzten erantzunak jasotzen dituzte, gutxiespena edota erasoak —autoestimua eraikuntzan eragin ezkorra duten jarrerak— pairatzeko arriskua hartuz. Hein berean, neskek aukeratu eta giza-sareetan partekatzen dituzten argazkiak gutxika-gutxika haien irudi sozialaren zati bilakatzen dira. Besteek haiez duten irudia euren argazki-historialak erakusten duena izango da eta batzuetan irudi sozial hau nagusituko da haien gaineko iritzi eta balioespenari dagokionean. Horrela bada, benetakako «Ni»aren (oparora, aldakorra, kontraesankorra eta ondorioz, benetakoa) eta «Ni birtual»aren arteko aldea areagotu egiten da.

Zenbait heldurentzat edo neska gazteentzat rol-joko baten parte izan daitekeen honek, nerabeen kasuan, parte-hartzaile ugari duen balioa edota auto-balioa emateko modu bat izateko arriskua du, benetan nesken bizitzan garrantzitsuak diren pertsonen iritziak lausotuz.

5.2. ... NORTASUN BIRTUALEZ...

Ikerketa honetako berri-emaileek alde eta kontraesan handiak ikusten dituzte bizitza birtuala (giza-sareetan adierazten den hura, irudi eta hitzen bidez irudikatzen dena) eta benetakoko bizitzaren (benetan gertatzen den hura) batueran.

Badirudi sare sozialek aurrez aurreko komunikazioak ezartzen dituen iragazkiak murrizten dituztela eta pentsamenduen berehalako adierazpena errazten dutela. Nerabe eta gazteak benetakoko bizitzan baino sentimendu anitzagoak adierazten ausartzen dira eta eguneroko bizipenen «edertze emozionala» askoz ere arruntagoa da, benetakoko bizitzan izango litzatekeena baino askoz errazagoa delako.

Hori dela eta, batzuetan, birtualitate eta errealitatearen arteko kontraesan horrek sortarazitako frustrazioa adierazi ohi dute nerabeek zein gazteek: sareetan benetan ez direna ema-

ten duten neskak, sareetan nortasun ausart eta adorea erakutsi arren, aurrez aurre hitz egiten ausartzen ez diren mutilak; hots, badaude giza-sareak identitateak hanparazteko darabiltzaten pertsonak, estereotipoetatik edota haiek mundu birtual horretan onartua izango dela uste dutenetik hurrago dauden irudi sozialak sortzen dituztenak.

Azpimarratu nahi dugu jokabideen birsorkuntza hori neska-mutilen garapenean jolas onuragarria izan zitekeela, baina beraiek, ordea, desberdintasun horiek susmo txarrez eta arranguraz bizi dituztela.

Bestetik, komunikazio birtual hau hedabide askoren bidez zabaltzen da eta jende ugariengana arintasun handiz heltzeko gai da. Nerabeek badakite jakin giza-sareek esparru zehatz batera murriztutako benetako bizitzan baino jende kopuru handiagoarekin komunikatzeko aukera ematen dutela, askoz ere haratago heltzea ahalbidetzen dutela; haien logelako lau hormen artean egon arren, munduarekin konektatzeko aukera eta haien ahotsa indar ikaragarri altxatzeko aukera ematen dietela. Oro har haien *lagun birtualekin* komunikatzen direla adierazi arren, esaten dutenaren garrantzia jakin ala jakin ez, giza-sareek, hedabide diren heinean, bizitza birtual hori lagun-talde itxitik askoz ere urrutirago hedatzen dute, dela hau zein ez dela gazteen helburua.

5.3. ... ETENGABE KONEKTATUTA

Berdinekin harremanak izan eta komunikatzeko nerabeek lehenesten duten esparrua giza-sareena da, helduek sarbiderik ez duten esparrua. Bertan bateratzen dituzte eremu anitzetan (eskola, familia, adiskideak, aisialdia) ezagututako pertsonak, jende berria ezagutzen dute, elkarrekin komunikatu eta elkarrekiten dute, eta batez ere, hitzorduak egin eta planak egiteko bide gogokoena dira. Bertan bateratzen dituzte harreman pertsonalak eta harreman birtualak eta bertan gaurkotzen dituzte eguneroko bizipenak, *klik* xume batez haien ezagunen taldeko alderdi pertsonalak ikusteko eta ezagutzeko aukera izanez.

Gizarte sareetako profileen nerabe eta gazteen bizitzarekin zerikusia duten alor asko elkartzen dira: argibide pertsonalak, gustu eta zaletasunak, ibiltzen diren lekuak, bizi dituzten gertaera eta sentimenduak eta gainera, lagunekin konektatuta daude eta ikusgarri dira argazki eta iruzkinak medio; egunez egun munduarekin konektatutako norberaren bizitzaren isla eta irudikapena gauzatzen duen informazio mordo bat.

Interneteko konexioa egiteko gune zehatz eta jakin baten beharrik ez duen sakelako telefonoaren bidez edozein lekutan egin daitekeen etenakako konexioak, sare sozialek nerabe eta gazteen bizitzako eremuetan eskua sartzea errazten du. Esku-sartze hori bizipenak, pentsamenduak edota sentipenak sortzen diren unean bertan gertatzen da eta mugimendu oro instantean eta bat-batean adieraztea ahalbidetzen du, baita igarotako mugimenduen historiala biografia edo eguneroko pertsonal (eta aldi berean sozial) gisa jasotzea ere.

Horregatik guztiagatik, giza-sareetako profila gazteen eta nerabeen banakako bizitzaren ispilu bilakatzen da eta ispilu honek ez du irudiak itzultzeko bakarrik balio, baizik eta ororen gainetik, irudiak eraikitzeko.

Gizarte-sareak identitate pertsonalen eta genero-identitateen eraikitzaile dira dagoeneko eta haiekin dakartzate orain arte ezezagunak izan diren alderdiak, batik bat giza-mezuak bitartekaritzarik gabe heltzen direlako gazte eta nerabeengana, hots, gogoko dena barneratu eta nahi ez denari uko egiteko aukerarik gabe.

Benetako bizitzan, giza-mezuen gaineko gertuko ingurunearen bitartekaritza (familia, lagunak, harreman-sareak, partekatutako guneak, erakundeak, eta abar) ezinbestekoa da identitate pertsonalen eraikuntzarako, generoaren alderdia barne. Bizitza birtualean giza-mezuak oldez datoz, kopuru ikaragarria osatzen dute eta helduen bitartekaritza desagertu egiten da. Hori dela eta, genero-rolak oso indartsu ager daitezke eta neska-mutilek bere horretan barneratu ahal dituzte mezuok zalantzan jartzen dituztenekin kontakturik ez badute.

Etengabeko konexioa etengabe gizartearen eraginpean egoteko modu bat ere bada. Historian inoiz gertatu ez dena gertatzen ari da, hots, gazteak dira genero-jarrerak egokiak edo desegokiak diren adierazten duten mezuak hedatzen dituztenak.

5.4. BENETAKO DESBERDINTASUNA, DESBERDINTASUN BIRTUALA

Intimitatea eta argazkiak erakusteak neskentzat zein mutilentzat ondorio kaltegarriak ekarri ahal izanagatik, jokabide hauek nesken artean normalizatuta daudenez, neskak dira arrisku hauek askoz ere maizago hartzen dituztenak, bai baitirudi mutilek haien intimitatea

giza-sareetan babesteko gaitasun handiagoa dutela. Mutilek, rol maskulinoa birsortuz, nahiago dute sentimenduak ez adieraztea, bere buruaren inguruko berri gehiegirik ez ematea; nahiago dute giza-sareak entretenitzeko eta aisialdirako erabiltzea, hots erabilera baliagarria lehenesten dute erabilera sozialaren aurrean, eta gainera, neskek baino jazarpen eta eraso gutxiago pairatzen dituztela dirudi. Horrez gain, jazarpen jokabideak, maizago, sexu maskulinoa duten erabiltzaileen eskutik etortzen direla ohartzen dira.

Neskek, giza-sareen erabiltzaile usuak, mutilek baino neurri handiagoan jartzen dute bere burua arriskuan, gauza intimoak adierazten dituztelako, kontaktu eta argazki gehiago dituztelako, eguneratze gehiago egiten dituztelako, eta aldi berean, mutilek (ezagunak eta ez hain ezagunak) bidalitako adiskidetasun-eskaera gehiago jasotzen dituztelako. Giza-sareak haien esparru intimoaren erreferentu bihurtu dira eta beraien buruaren irudiaren eta balioespeneraren eraikuntzarako oinarritzko iturri. Errealitate honen arriskua edonor haien intimitatean sartu eta min egitean datza.

Orain arte ikusi dugu neskek eta mutilek ez dituztela giza-sareak modu berean erabiltzen, eta eraginak eta ondorioak ere desberdinak direla. Giza-sareetan genero-harremanen desberdintasunaren birsorketa etengabekoa dela ere ikusi berri dugu. Mutilak dira proposamenak eta sailkapenak egin eta neskekin harremanak izateko egitasmoak plazaratzen dituztenak, neskek, bere aldetik, ezezkoa emateko aukera dute. Harremanetan neskek kontrol-aukera handiagoa badute ere —*klik* bat nahikoa da gogoko ez den kontaktua ezabatzeko—, ez dirudi benetako kontrola beste batzuen eskuetan dagoela erakusten duten esku-hartze hauetatik aske daudenik.

5.5. SEXISMOA ETA NESKEN AURKAKO INDARKERIA MUNDU BIRTUALEAN

Gizarte-sareen erabileraz neskek eta mutilek egiten duten mintzaldian arreta gehien ematen duena da zein maiz jasotzen dituzten neskek sexu-eduki edota sexu-jazarpenari lotutako adiskidetasun-eskaerak, eta zein normaltasunez barneratzen dituzten. Bai neskek, bai mutilek badakite eta onartzen dute giza-sareetan gertatzen den zerbait dela eta neska izateagatik beragatik egokitzen den gertaeratzat jotzen dute; ezinbestekoa dela uste dute. Arazoa da era honetako jokabideen maiztasunak atzean dagoen jazarpena normalizatzen eta ezkututzen dela eta generoari lotutako indarkeria dela ulertzea ekiditen duela.

Neskek neskak direlako soilik jasotzen dituzte horrelako eskaerak, eta ondorioz, neska izatea arriskutsua da giza-sareetan; neska izatea nahikoa da gizon ezagun edota ezezagunek, nagusi edota adin berekoek, neskei mezuak bidaltzeko eskumena hartzeko, haien argazkiak eskuratzen saiatzeko edota argibide intimoen bila haien profilak zelatatzeko.

Aipagarria da jazarpen-jokabide honen maiztasunak nesken berehalako erantzuna sortarazi duela, dela jazarleak ezabatuta dela ez onartuta, baina ez du sortarazi indarkeria matxistaren gaineko kontzientzia sakonagoa. Era honetako egoerak maiz bizi dituztela onartu arren, ez dira ohartzen hauek teknologia berrien erabilpenaren eta probetxuaren desberdintasunaren adierazpide direnik; badirudi, oroz gainera, sareen «berezko» eragozpentzat hartzen dituztela.

Baiezta dezakeguna da indarkeria birtualak leku handia daukala giza-sareetan, ugartzen ari dela eta geroz eta adierazpide indartsuagoez ezartzen ari dela. Aitzitik, jazarpen-jokabide eta irudi eta esaldi bortitz hauen zabalkundea gora-behera, neskek, nerabeek batik bat, ezikusi eginez erantzuten dute.

Izan daiteke indarkeria birtual hau etengabe pairatzeak benetako indarkeriaren aurreko jasangarritasuna handitzea. Esan nahi baita, jokabide hauei jaramonik egin ez, gutxitu, ukatu edota normalizatzearen ondorioz, indarkeriaren aurreko sentikortasuna eta honi aurre egiteko gaitasuna gal daitezkeela. Benetako bizitzan kontrol, jazarpen edo indarkeria-jokabideak ez dira *klik* soil batez ezabatzen; neskak, ordea, horrela ari zaizkie aurre egiten eta daitekeena da erratzea eta benetako bizitzan indarkeriaren aurrean beraien buruak babesteko gaitasuna dutela pentsatzea.

KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

6. Ondorioak eta aholkuak



6

Ondorioak eta aholkuak

Gizarte sareak gazteentzat ia ezinbesteko komunikazio esparru bihurtu dira eta ezinbestekoa zen, halaber, honen inguruko ikerketa eta azterketa egitea. Sare sozialek euskal gazteentzat duten esanahia ezagutzeko helburuz aurkeztu genuen egitasmoa ikerlan miatzaile eta kualitatibo hau izan zen. Eztabaida-taldeen teknikaren bidez gazteen iritzi eta ohituren inguruko argibideak jaso eta sexu eta adinaren arabera sare sozialak nola erabili, bizi eta sentitzen dituzten ezagutzea nahi genuen.

Ikerketan, azkenik, Bizkaiko lau herritan (Barakaldo, Bilbo, Getxo eta Lekeitio) bizi diren laurogei eta zortzi lagunek parte hartu zuten.

2012ko azaroan 10 eztabaida-talde burutu ziren, batez beste zortzi lagunaz osatu zirenak, bai sexu bereko taldeetan, bai neska-mutilen taldeetan. Mutilen parte-hartzea txikiagoa izan zen, era honetako lanetan behin eta berriz nabaritzen den bezala. Nesken mintzaldia sakonkiago aztertu ahal izan dugu, neskak direlako era honetako ekimenei maizago erantzuten dietenak.

Proposatutako metodologia bi ordu inguruko eztabaida askea izan zen, eztabaida-gida eta giza-sareetatik ateratako materialak, sarean ibiltzeko ohitura dutenentzat oso ezagunak diren argazki eta mezuak, erabili zituena. Taldeen dinamizatzaile lanetan bost emakumezko eta bi gizonezko ibili ziren, sexu bakarreko taldeetan haien sexu bereko dinamizatzailea izatea ahalbidetuz.

Ikerketa honi ekin genionean, abiapuntuko hipotesi batzuk aurkeztu genituen giza-sareetako sexismoaren adieren inguruan. Guzti-guztietan jo genituen sexua eta adina aldagai bereizgarritzat, hau da, ideia bat aurreratu genuen: neskek eta mutilek batetik, eta nerabeek eta gazteek bestetik, desberdintasuna, sexismoa, kontrol-jokabideak, jazarpena zein indarkeriaren oharpen desberdina izango zutela.

Jasotako emaitzek hipotesi hau baieztatu dute, sexuaren zein adinaren arabera aldeak daudela ondorioztatuz.

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da sexu aldagaiaren eragina taldeen beren mintzaldi eta jarreretan sumatu ahal izan zela. Horrela, neska-mutilen taldeetan giza-nahigarritasun

handiagoa nabaritzen da eta neskei hitz egiteko ausardia falta zaiela dirudi. Taldeko partaide guztiak mutilak ziren taldeetan, aldiz, arreta ematen zuen jarrera sexistak maizago agertzeak eta estereotipoak erraztasun handiagoz adierazteak. Mutilek, gizonezko artean, aise adierazten zuten Internet pornografia ikusteko erabiltzea, eta sare sozialak limurkerian jarduteko, neskekin kontaktuak ezartzeko eta haien argazkiak ikusteko. Neska-mutilen taldeetan, ordea, mezu hauek ez ziren hain argi adierazten.

Aldi berean, neskek, neska-taldeetan, gaitasun handiagoa adierazi zuten onartzeko zein neurritaraino egiten duten bere burua ageriko sare sozialetan eta ez ziren ibili isil-gordeka sentimenduz hitz egitean. Neska-mutilen taldeetan, aldiz, bazirudien mutilak han egoteak zaildu egiten zuela intimitate eta egiazaletasun giroa.

Ondorio azpimarragarria da neskak direla sareen bidezko giza-komunikazioaren erabiltzaile nagusiak. Mutilen aldean, neskek egoera pertsonalago eta barnekoagoak adierazten dituzte profiletan; argazki, autoerreturatu eta erretratu sentsualak maizago erakusten dituzte eta sarriago darabiltzate sare sozialak lagunekin harremanak izateko. Haien burua mutilek baino gehiago erakusten duten heinean, adiskidetasun eskari gehiago, ezezagunen eskari gehiago eta eskaintza sexual gehiago ere jasotzen dituzte. Bestalde, haien fisikoaren arabera puntuatzen dituzten lehiaketetan ere parte hartzen dute. Horrela bada, neskek mutilek baino jazarpen arrisku handiagoa eta zaurigarritasun handiagoa bizi dituzte gizarte-sareetan.

Honekin batera, bai bikotekidea dutenak, baita ez dutenak ere, zenbaitetan nahasita daude bikotekideak ezar dezakeen kontrolaren gainean eta ez datoz bat beraien pasahitzak konfiantza-froga gisa mutilei luzatzeko aukeraren inguruan. Nesken taldeetako zalantzak, apikak, agianak desberdintasun elementu baten adierazle dira: hots, bikotekidea duten neskek berezko esparrurik, norberaren intimitaterik eduki behar ez dutelako ideia.

Kopuruaren aldetik, neskena adinako mutilen partaidetzarik lortzeko gai izan ez garen arren, kualitatiboki ere, mutilengandik jaso ditugun mintzaldiak ez dira hain landuak izan. Gizarte-sareak limurtzeko eta nesken argazkiak ikusteko, aisialdirako, guna egokitzen dituzte. Neskek baino argazki gutxiago igotzen dituztela diote eta sentimendu eta barne-egoerez inoiz gutxitan hitz egiten dutela; arriskurik jasan izan ez dutela adierazi dute eta sareetan egiten diren iruzkinen ondorioz larregi sufritzen ez dutela. Bestetik, ia denak bat datoz honako babes neurriekin: bikotekidearen kontrola onartezina dela deritzote eta euren pasahitza jakitera emateko aukeraren aurka agertu ohi dira. Norbere gunea izateko gaitasun handiagoa eta sare sozialen oinarritzko aisialdiko erabilera lirarteke haien mintzaldiak adierazitakoa.

Alde batetik, ondorioztatzen dugu, neskek eta mutilek, adina gora-behera, giza-sareen erabilera bereiztua egiten dutela; neskek adierazpenerako erabiliz eta mutilek erabilera argi eta garbi instrumentalagoa eginez.

Arriskuaz den bezainbatean, denak daude ados neskak sare sozialetan gehiago agertzen direla eta eraso arrisku handiagoa dutela.

Beste aldetik, sexuari lotutako desberdintasunez gain, adinak ere gizarte sareak erabiltzeko moduak eta adierak nabarmen bereizten ditu.

Nerabeek maizago darabilte Tuenti; gazteak, aldiz, Facebook zaleagoak dira. Whatsapp mezularitza aplikazioa, sare sozial bat izan ez arren, komunikatzeko bide gogokoena da adin guztietan, nahiz eta informatzaile gazteenei batzuetan zama bat iruditzen zaien aplikazioaren bat-batekotasuna. Neska-mutil gazteak gogaituta agertu ziren mezu andanagatik eta aplikazio honek ahalbidetzen dituen kontrol eta jeloskortasun aukeren aurrean.

Nerabeek zein gazteek haien bizitzetako esparru guztietan erabiltzen dituzte sare sozialak eta etengabe daude konektatuta, nahiz eta etenka egiten duten. Telefono eta bestelako gailu eramangarriek berebiziko garrantzia dute nerabe eta gazteen komunikazioetan. Amaitu ziren sarean konektatzeko ordenagailu pertsonala eta idazmahaia erabiltzen ziren garaiak. Konexio mugikorra eta edozein lekutan *online* egoteko aukera dira gazte tendentziak. Erabile-aren artean batez ere hauexek aurki ditzakegu: nerabeek komunikaziorako edo aisialdirako erabilera pertsonala egiten dute eta gazteek, informatzeko, haien lana ezagutzera emateko eta kasu batean, ziber-ekimen feministarako.

Adinak eragina du sare sozialen erabilerarekin neskek dituzten arriskuen oharpenetan. Nerabeek bortxarik sumatzen dutela adierazten ez duten artean, gazteek arriskuaren kontzientzia dute eta behin eta berriz egiten diote aipamena, iragana ebaluatuz eta orainarekin alderatuz. Talde gisa, neska gazteak txikiagoekin arduratuta daude, beraiek izan zirena baino zaurigarriago direla uste dutelako.

Dena den, garrantzitsua da kontuan izatea ezin dela baieztatu kausazko harremana dagoenik adinaren eta oharpenerako gaitasun handiagoaren artean. Aztertutako gazteen belau-naldiek (25 eta 29 urte artekoak), gaurko nerabeekin alderatuz gero, heldutasun aro desberdinean (20 urte inguru zituztela) bizi izan zuten gizarte sareen garapena. Gaurko nerabeak 11-12 urtetik hasita haien identitatea sare sozialei lotuta eraikitzen ari diren lehen nerabeak dira eta

beraz, sexismoa normalizatzeko arriskua eta indarkeria sinbolikoa eta ziberjazarpenaren aurreko jasangarritasuna handiagoak dira. Nerabeak sare sozialetako harremanen bidez ari dira hazten eta haien identitate pertsonalak eta generozkoak eraikitzen. Sareetan igortzen diren mezuen eragina, hortaz, gazteengan izandakoa baino aski handiagoa izan liteke.

Gaur egungo nerabeen aldean, giza-sareen nonahikotasunak haien nerabearoa hainbestean itxuratu ez zuen gazte belaunaldiek (haien identitate-krisiaren aldian giza-sareak oraindik ez zirelako orokortu) behin eta berriro diote gaurko nerabeek baino kontrol handiagoa dutela eta badirudi aisago atzematzen dituztela ingurune birtualean gertatzen diren indarkeria eta erasoak.

Nerabe eta gazteak bat datoz benetako munduaren eta mundu birtualaren arteko aldeak nabaritzeko orduan. Bigarrenean aukera asko daude identitate anitzak eraikitzeke eta besteen aurrean agertzeko moduekin jolasteko, errealitatean lekurik apenas duten jarrerak adierazteko. Horregatik, norbait modu birtualean ezagutu eta gero, ohikoa izaten da desengainua benetako munduan ezagutzen denean. Era honetan bateratzen dira birtualitatea eta errealitatea neska-mutileen bizitzetan, batzuetan nola ulertu ez dakiten pareko errealitateak agerraraziz.

Bikote harremani eta gizarte-sareei dagokienean, Whatsapp aplikazioaren kontrol sentipen handiagoa da aipagarriena. Sare sozialek lagun arteko kontaktuak errazten dituzte. Dena den, lagunekin komunikatzea ahalbidetzeaz gain, taldeetako neska-mutilek sarritan adierazi digutenez, Whatsapppek bikotekideen artean gatazkak eta jeloskortasuna sorrarazten dituela dirudi.

Sare sozialetan ikus daitekeen sexismoa aurrez aurreko harremanetakoa baino sarkorragoa dela adieraz dezakegu. Neska-mutilek ordurik ordu aurre egiten dioten indarkeria sinbolikoak eta sare sozialez baliatuz mezuak bidaltzearen erraztasunak (buruz buru ekintzari aurre egiteak dakarren zailtasunetik at), alboraezinak diren desberdintasunak eta indarkeriak sorrarazten dituzte.

Hala ere, salbuespenak salbuespen, ez dago kontzientziarik etenka egiten den, baina etengabea den agerraldi honek nesken eta mutileen arteko harremanetan, ezta, orokorrean, errealitatearen aurreko jarreraren aurrean ere, dituen ondorioez. Neska-mutilek argi daukate kontrola bere eskuetan daukatela eta *klik* bat nahikoa dela gustuko ez dutena ezabatzeko. Baina *klik* bat ez da nahikoa benetan bizitakoa ezabatzeko.

Azkenik, ikerlan hau miaketa bat dela kontuan izanik, merezi du ondorengo aholkuak nabarmentzea, sare sozialen erabilera indarkeria matxistatik askatu eta sexuen artean parekatua izan dadin bultzatzeko estrategiak zabaldu edota hobetze aldera.

- Giza-sareen inguruko azterketaren ondorio eta emaitzak zabaldu. Ikerketa hau EAEko gazteen mintzaldiaren lehen ikustaldi eta jasoketa bat da. Hala ere, elkarrekintza eta kolaborazioa oinarritzat jotzen dituen 2.0. filosofiari jarraiki, gomendagarria da mintzaldi hau aztergai duen eremuan bertan, hots giza-sareetan bertan, ezagutzera ematea eta eztabaidatzea. Ikerketaren emaitzak giza-sareetara eta hauen erabiltzailengana hurbiltzea ezinbestekoa da, emaitzon inguruko balioespen, iritzi eta eztabaidetan oinarrituz, giza-sareen erabilpenari buruz dauzkagun ezagutzak sakondu, hobetu eta zabaltzeko.
- Gizarte-ekintza informatikoa suspertu giza-sareen erabilera parekidea eskuratzeko oinarritzko urrats den bezainbatean. Gizarte sareen erkidegoak lineako hedapenerako eta kolaboratorako ematen duen aukera kontuan izanda, ezinbestekoa da gizarte-ekintza informatikoa sustatzea eta nerabeengana hurbilaraztea, haien artean hedatuago dagoen erabilera pertsonal eta intimoaz landa eskaintzen dituen aukerak ezagut ditzaten. Gizarte sareek eskaintzen dituzten erabilera anitzak ezagutzera ematea mesedegarria izan daiteke gazteek beste forma, bide, komunikazio eta mezu batzuk ikus ditzaten, estereotipatutako jokabideekiko apurketa bultzatzea, baita haien tendentzien artean indartsuenak diren baloreetatik (edo kontrabaloreetatik), hots, irudia eta giza-irudikapena, urruntzeko aukera izan dezaten ere. Aniztasunarekiko errespetua suspertuko duten giza-sareak eraikiko badira, sareetako bertako komunikazio-bideek kolaborazioa eta giza-komunikazioa bultzatu behar ditzate.
- Emozioen heziketa eta harremanetarako txertatuko dituen IKTen inguruko heziketa sustatu. Kontuan izan behar da giza-sareen bitartez komunikatzeko ez direla soilik gaitasun tekniko edo teknologikoak eduki behar, baizik eta gaitasun eta trebetasun sozial eta emozionalak berebiziko garrantzia dutela gune honetan gertatzen den komunikazio mota nagusiari, hau da, harremanetarako komunikazioari dagokionean. Beraz, giza-sareetan gure emozioak erakusteak ekar ditzakeen arriskuen aurka babestea edota intimoak diren edukiak ezagutzea, ezagutza teknologikoari lotuta joan behar duen ikasketa-prozesu guztiz beharrezkoaren alderdiak dira.
- Giza-sareen erabilera sexista edota bortitza salatu. Azkenik, nabarmentzekoa da, sexu-indarkeriak giza-sareetan duen presentzia eztabaida sorraraztearen garrantzia, errealitate hori (nerabeek normaltzat joagatik, garrantzi txikikoa ez dena), ezagutzera emateko.

KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

7. Erreferentziak



7

Erreferentziak

Bonder, Gloria. «Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartearen sorrera: egokitzetik jabetze eraldatzaile». *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko Nazioarteko Biltzarra*, Bilbo, 2012ko urriaren 17a.

Cantera, Itziar; Estébanez, Ianire y Vázquez, Norma. *Violencia contra las mujeres jóvenes: La violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*. Bilbao: Módulo Psicosocial de Deusto-San Ignacio, 2009.

Corral, Susana. «Conductas violentas en parejas jóvenes: Prevalencia y perfil cognitivo asociado al ejercicio de la violencia». Argitaratu gabeko doktore tesia. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2006.

Cruces, Francisco; García, Néstor y Urteaga, Maritza (Koordk.) *Jóvenes, culturas urbanas y redes digitales*. [linean] Bartzelona: Ariel, 2012. Webean eskuragarri: http://www.articaonline.com/wp-content/uploads/2011/07/jovenes_culturas_urbanas_completo.pdf [2013ko urtarrilaren 31ko kontsulta].

Gazteen argazkiak, 15. Hedabideak. [linean] [Vitoria-Gasteiz]: Eusko Jaurlaritzaren Lehendakari-tzako Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea; Gazteen Euskal Behatokia, 2012. Webean eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7657/es/contenidos/noticia/gazteen_argazkiak_15/es_gazteen/adjuntos/retratos15_c.pdf [kontsulta: 2013ko urtarrilak 31].

Lasén, Amparo eta Gómez, Edgar. Digital Photography and Picture Sharing: Redefining the Public/Private Divide. [linean] *Knowledge, Technology and Policy*, 2009, vol. 22 (3), 205-215. Webean eskuragarri: http://www.academia.edu/446728/Digital_Photoaphy_and_Picture_Sharing_Redefining_the_Public_Private_Divide [kontsulta: 2013ko urtarrilak 31].

Lasén, Amparo. «Mediaciones tecnológicas y transformaciones de la intimidad entre jóvenes». *Congreso Internacional Jóvenes Construyendo Mundos*, Madril, 2010eko urriaren 14 eta 15ean.

- Meras Lliebre, Ana. Prevención de la Violencia de Género en adolescentes. *Estudios de Juventud*, 2003, vol. 62, p. 143-150. Webean eskuragarri: <http://www.injuve.es/sites/default/files/art11.pdf> [2013ko urtarrilaren 31ko kontsulta].
- Observatorio e-igualdad UCM. *La brecha digital de género en la juventud española. Estudio cuantitativo*. 2010. [linean] Webean eskuragarri: http://www.e-igualdad.net/sites/default/files/Brecha_digital_genero_juventud_espanola_2010.pdf [kontsulta 2013ko urtarrilak 31].
- Save The Children. *La tecnología en la preadolescencia y adolescencia: Usos, riesgos y propuestas desde los y las protagonistas*. 2010. [linean] Webean eskuragarri: http://www.deaquinopasas.org/docs/estudio_riesgos_internet.pdf [2013ko urtarrilak 31ko kontsulta].
- Segato, Rita. «La economía del deseo en el espacio virtual: hablando sobre religión en internet». In: *Las estructuras elementales de la violencia*. Buenos Aires, Universidad Nacional de Quilmes, Prometeo 3010, 2003.
- Sortzen Consultoría. *Indarkeria sexistari buruzko gazteen pertzepzioaren eta iritzien diagnostikoa Ondarroan eta Markina-Xemeinen, 2010*. Bilbao: Sortzen Consultoría, 2010.
- Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea. EU Kids Online ikerketa sarearen baitako azterketa [linean] <http://www.ehu.es/eukidsonline> [kontsulta: 2013ko urtarrilak 31].

